




MARIARRO





Mariarro, feminismoan bidaide eta zubigile.
Memoria kolektiboa ehuntzen

Edizioa:



ermukoemakumefeministak@gmail.com

Egileak: Idoia Eizmendi Aldasoro, Aitziber Aginagalde Bilbao

Koordinatzaileak: Begoña Fernández Alcalde, Rosa Baltar Cabo

Itzultzailea: Danele Sarriugarte Mochales

Azaleko irudia: Sonia García Fuentes / IRRIKIRRI

Diseinua: Marra, Servicios Publicitarios, S.L.

Imprimatzailea: Printheus, S. L.

Lege-gordailua: BI 00573-2024


ISBN: 978-84-125598-5-9

Dirulaguntza:



Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa. Lan honek Creative Commons lizentzia du. Baimenduta dago lan hau askatasunez kopiatzea, banatzea eta komunikatzea baldin eta egilea aitortzen bada eta merkataritza xedeetarako erabiltzen ez bada. Ezin da lan hau aldatu edo eraldatu, ezta lan honetatik beste bat eratorri.

Lizentzia osoa, hemen: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/>



Mariarro, feminismoan bidaide eta zubigile. Memoria kolektiboa ehuntzen



1.

Hitzaurrea

M^a Rosario Arrizabalaga Urreta (Ermua 1949-2021) emakume aparta zen. Bere ibilbidearen nondik norakoak idaztea merezitako omenaldia egitea baino askoz gehiago da: emakumeen memoriaren aitortza bat da, memoria hori berreskuratzeko, sortzeko eta zabaltzeko ekintza bat. Hain maitea zuen herri honen mugetatik harago, bere bizitza eta ondarea orainean eta etorkizunean ezagut daitezten.

Mariarro emakume bikaina izan zen: azkarra, gogorra eta dibertigarria, sentibera eta gupidagabea, irakaslea, ikaslea, langile nekaezina, eskuzabala... Errepikaezinak eta hain beharrezkoak diren pertsona horietako bat zen bera. Ermuko Emakumeen Asanbladako kideok bere biografian sakondu nahi izan dugu, aurrera eraman zituen borroketan utzitako arrastoa partekatu eta plazaratu. Beti hor egongo zela uste genuen, bere adats zuriarekin. Mundu guztiari agintzen bizitzan parte hartzeko, berak bezain sutsu. Zoritzarrez, oker geunden, eta oraindik haren absentsia sentitzen dugu. Hala ere, bere indarrak bizirik dirau, eta oroimen hori itzultzer datorkigu nolabait. Hitzek badute sendatzeko gaitasuna, eta idazten direnean, iraun egiten dute, eta oroimena ehuntzen; gure oroimena emakume eta herri gisa. Mariarro gurekin dago horrela, betiko.


Hori izan da gure helburua: sinplea baina aldi berean konplexua; ehun biografia ere ez liratekeelako aski bere ibilbidea deskribatzeko. Gure bitartekoak mugatuak izan dira eta, horregatik, ulermena eskatzen dugu hutsuneen aurrean; egon badaude, ziur, baina ez hainbeste ahanzturagatik, baizik eta dena barnean hartzeko ezintasunagatik. Eskerrak eman nahi dizkiegu parte hartu duten pertsona guztiei, haien bizipenik intimo eta pertsonalenak gogoratzen eta partekatzen eman duten denborarengatik eta maitasunagatik.

Gure esker ona adierazi nahi diegu dokumentu hau idatzi dutenei ere, sentsibiltate, gogo eta atxikimendu itzela erakutsi dute eta.

Mariarro, ezkerria, hiritartasuna, feminismoa, harrera eta elkartasuna bizitzeaz gain, eraiki ere egin zituen. Eta gure historia eta bizitzak aldatu zituen, hobetu. Eskerrik asko, Mariarro. Zure gorputzak atsedean hartzen du eta zure memoria bizirik eta presente dago: eraldaketarako genealogia feminista.

Borrokak aurrera jarraitzen du.

ERMUKO EMAKUMEEN ASANBLADA



2.

Lehen urteak Ermuan. Haurtzaroa eta nerabezaroa

Maria Rosario 1949ko urriaren 18an jaio zen, Jesusa Urreta eta Jose Maria Arrizabalagaren lehen alaba izan zen. Maria Rosarioren atzetik Alejandro, Ignacio, Jesus eta Mari Carmen etorri ziren. Bera jaio zenean, Francok 10 urte zeramatzan boterean. Gobernu totalitario hartan, jazarpena, tortura, espetxeratzeak eta exekuzioak egunerokoaren parte ziren. Gosearen, estraperloaren eta errazionamendu-kartillen garaia ere bazen.

Anaia Alejandroren hitzetan, ama eta aita «tradizionalistak eta karlistak ziren»¹ testuinguru horretan. «Nire aita klubeko presidentea zen, zinegotzia tertzio familiarraren aldetik², eta garai hartan Sindikatu Bertikalekoa³...». Nolanahi ere, baliabide ekonomiko gutxi zituen langile-familia bat zen, eta gerraosteko ondorioak eta behar ekonomikoak pairatu zituzten.

1950eko hamarkadan, azkar eta kontrolik gabe hazi ziren Ermuko industria eta biztanleria; garai hartan, Maria Rosario neskato bat besterik ez zen. Espainiako Estatutik jende asko iritsi zen Ermura, gosetik ihes egiteko eta industrian lanpostu bat bilatzeko helburuarekin, sektore horretan eskulana behar baitzen. Neurrigabeko hazkunde horren ondorioz, udalerria ez zen gai gutxieneko zerbitzuen eskaera guztiei aurre egiteko; besteak beste, eskolak, osasun-zentroak, estolderia, argiteria, espaloiak eta berdeguneak.

1 Beste iturririk aipatu ezean, testigantzak ikerketa honen barnean jasotakoak direla ulertzen da.

2 Frankismo-garaian, udalak honela antolatzen ziren: tertzio familiarra, tertzio sindikala eta erakundeen tertzioa.

3 Sindikatu Bertikala, frankismo garaian baimenduta egon zen sindikatu bakarra, 1940tik 1977ra.

Alejandrok dioen bezala, Maria Rosarioren familia «*rara avis*» bat zen egoera berri horretan, ez baitzen kanpotik etorria: «Ama eta aita hemen jaiotakoak ziren, Ermuan. Haien gurasoak, hau da, nire aitona-amonak, haiek ere Ermuan jaiotakoak ziren».

Baina familia-eredu hura zen nagusi garai hartan, generoaren arabera industria-eredua. Industriaren hazkunde horretan, Jose Maria aitak lanbide bat izateko aukera ikusi zuen, eta metalurgian aritu zen. Ama, Jesusa, ezkongabea zenean «neskame jardun zen Bilbon, aberatsen etxean» eta bera ere inguruko lantegietan lan egiten hasi zen. Ezkondu eta gero, 28 urte zituela, lana utzi eta familiara eta zaintzara emanda bizi izan zen. Ondoren, beste emakume askok bezala, ezkutuko ekonomiara jo zuen: «Diru pixka bat irabazteko elkarte gastronomiko bat garbitzen zuen eta koinata bati ere lagundu zion semea zaintzen», azaldu du Alejandrok.

Beraz, nazionalkatolizismoak inposatutako familia-ereduan hazi zen Maria Rosario. Eredu horrek etxekotasunera zigortzen zituen emakumeak: diktaduraren urteetan, proiektu errentagarria izan zen politikarentzat, ekonomiarentzat eta familia patriarkalarentzat.

Eredu hori inposatzeko, Francok araudi juridiko oso bat finkatu zuen, emakumeak legez diskriminatzen zituen. Eta ideologia falangistan eta familia-egitura patriarkalean oinarritutako propaganda politiko eta moral bortitza erabili zuen. Emakumeen Saila⁴ eta Emakumearen Gizarte Zerbitzua arduratu ziren eginkizun hori gauzatzeaz. Ermuan, Emakumeen Sailak ez zuen egitura sendorik izan⁵, baina Gizarte Zerbitzua zabalduago zegoen, izan ere, emakumeek, baldin eta gidabaimena, pasaportea edo beste agiri batzuk eskuratu nahi bazituzten, Gizarte Zerbitzua egin behar zuten nahitaez⁶. Alejandroren ustez litekeena da Maria Rosariok ere zerbitzua egin behar izatea.

4 Espainiako Falangeko JONS alderdi faxistako Emakumeen Saila; 1934an Pilar Primo de Riverak sortua. Taldea 43 urtez aktibo egon zen.

5 Iturria: “Sobre la Historia de la Mujeres de Ermua: Esa es otra historia”. 1994ko urriko Emakumeen Udal Kontseilua. Online ikus daiteke.

6 17 eta 35 urte arteko emakume ezkongabe eta alargunak, ondorengorik gabeak.

1958an, Mariarrok 9 urte zituenean, eta familia-egitura sendoa zuenez, «ahizpa asko, koinatak eta abar», Berrizera bidali zuten ikastera, dio anaia Alejandrok. Horretarako, bere izeba Margaritaren –aitaren arreba– etxera joan behar izan zuen, eta Berrizko Mesedeetako Misiolarien ikastetxean eskolatu zen. Kongregazio horrek neskei benetako prestakuntza emateko interesa erakutsi zuen, etxeko lanetatik harago. Eta Alejandroren iritziz, «ikastetxe elitista zen, eta bertan hilabete egiteak aitaren hileko soldata halako bi balio zuen». Horregatik egon zen izebaren etxean bizitzen.

Txikitan bere adimenagatik eta «oso neska ernea» izateagatik nabarmentzeaz gain, ikasteko aukera izan zuen, ondoren lana lortu ahal izateko, horretarako baldintza batzuk suertatu baitziren.

1950eko hamarkadaren bigarren erdian, hazkunde ekonomiko bete-betean, eskulan kualifikatuaren beharra ikusi zuen erregimenak, eta, ondorioz, emakume ezkonduak enplegu arautuan sartzea erraztu zuen.

Maria Rosariok berak esan izan zuenez, «Aukera Berdintasunerako Patronatuaren bekak ematen hasi zen Espainiako Gobernuak. Aukera Berdintasunekoak⁷ deitzen ziren, emakumeen eskulana behar baitzen enpresetan, bulegoetan ...»⁸. Mariarrok beka bat lortu zuen Aukera Berdintasunaren Printzipioa Sustatzeko Funts Nazionalaren Patronatuaren eskutik. Beka hori emateko kontuan hartzen ziren ikasketetarako gaitasuna eta familiaren baliabide ekonomiko baxuak.

Beka horri esker, 1961etik 1968ra Markinako Vera Cruz ikastetxean egon zen, Administrazio Batxilergoa egiten. Mariarroken hitzetan, «barnetegia asko zabaldtu zen neska bekadunak

7 Aukera Berdintasuna ez zen emakume eta gizonezkoen artean, baliabide ekonomiko baxuak zituzten familientzat baizik.

8 Audio-elkarriketa, *Drogetenitturri* (2020).

hartzeko (...). Lanbide-heziketa moduko bat egin nuen, garapen industrialaren garaian sortu zen, 1960-70eko hamarkadetan. Denetarikoa lanbide-heziketak zeuden. Hemen Administrazio Batxilergoa egiten genuen»⁹.

Alejandroren arabera, barnetegiko urteetan, Mariarro eskolako oporretan baino ez zen itzuli Ermura. «Aita eta ama bisitan joaten zitzaizkion, Ermuko beste neska batzuk ere han baitzeuden, eta beste familia batzuekin joaten ziren eguna pasatzera. Baina bera Gabonetan eta udan baino ez zen etortzen».

Distantzia gorabehera, ez dirudi batere gaizki konpondu zenik. «Bere egonaldia ez zen traumatikoa izan, ezta gutxiagorik ere. Pozik zegoen han. Lagun asko zituen eta oroitzapen atseginak kontatzen zituen: Toledora joaten zirela bidaian, ligatzera irteten zirela... Neskatoen eskola barruko istorioak».

Moja-eskolan ere bere izaera aldarrikatzailea adierazten zuen. Alejandrok dio: «Mojek esaten zuten ez zela isiltzen, arrazoa izan behar zuela beti, eta mojen gauza horiek: aldarrikatzailea zela, eskua altxatzen zuela, ez zela isiltzen».

Alejandrok kontatzen duenez, Jesusak, amak, beti esaten zuen izaera aldarrikatzaile eta borrokalari hori «Maria izeneko izeba batengandik –aitaren ahizpa zaharrena– zetorkiola. Garai hartan, 1936ko gerra baino lehen eta ondoren, antzezlanak antolatzen eta zuzentzen zituen Ermuan. Ez zen isiltzen, ezta ur azpian ere, asko irakurtzen zuen... Amak azaltzen zidan kontu-kontari eta barrezka aritzen zirela lanera sartzeko zain zeudenean. Maria, berriz, irakurtzen egoten zen beti. Gero, moja sartu zen, baina ez dohatsua zelako, ez; herritik irteteko eta bizitzeko modu bat zelako baizik. Apenas egon zen komentu batean, eta Hego Amerikara joan zen gero: Uruguain, Paraguain eta Argentinan egon zen. “Izebaren antza duzu, ez zara isiltzen, ez zaude inoiz isilik,

9 *Ídem.*

saltsa guztien pipermina zara, leku guztietan sartzen duzu muturra” esaten zion amak, horregatik bere erreferentea zela uste dut».

Izeba Mariatz gain, Mariarrok berak kontatzen duen bezala, barnetegian zegoela, asko markatu zuen beste erreferente batek: Mikel Zarate, erlijio-irakaslea¹⁰. Bera izan zen eskoletan justizia sozialaz eta aberastasunaren birbanaketaz hitz egiten entzun zuen lehen pertsona. Mariarrok 15 urte besterik ez zituen, baina kontzeptu horiek presente egon ziren bere bizitzako borroketan.

10 Mikel Zarate (1933-1979). Idazlea, apaiza, irakaslea eta euskararen bultzatzaile sutsua. Mallabiako kale batek bere izena darama.





3. Klandestinitatea eta langile-borroka



Mariarroren konpromiso militantea laster iritsi zen: frankismoan ezker erradikaleko alderdi bateko militantea izanik, klandestinitatean ibili zen. Erretiroa hartu zuen arte, militantzia eta enplegua uztartu zituen beti. Unamunon egin zuen lan (gerora Monroe izena hartu zuen) eta ondoren Banco de San Sebastián bankuan, zeina hainbat fusioren ondoren Banco Santander bilakatu baitzen. Erretiroa hartu ostean, bete-betea jardun zuen hainbat borrokatan.

Lehen militantzia-urteak nahasiak izan ziren maila politikoan eta sindikalean. 1966ko azarotik 1967ko maiatzera, frankismo-garaiko lan-gatazkarik handiena izan zen: Banden Hotzeko Ijezketaren greba, Etxebarrin. Patronalak grebalariak kaleratu eta negoziazioei uko egin ziela ikusita, gatazka erradikalizatzen joan zen, eta elkartasun-oldea sortu zen Bizkaia osoan: grebak egin ziren, manifestazioak, diru-bilketak, eta Basauriko Sindikatu Bertikalaren egoitza ere okupatu zen. Ekintza horien guztien aurkako errepresioa oso gogorra izan zen, Guardia Zibilak eta brigada sozialak atxiloteta masiboak

egin zituzten, eta apirilean salbuespen-egoera ezarri zuen gobernuak. Horren ondorioz, grebalari eta manifestari gehiago atxilotu zituzten, eta hainbat urteko kartzela-zigorrak ezarri zizkieten.

«Banden greban», Mariarro barnetegian zegoen oraindik, baina horrek ez zuen eragotzi elkartasun-ekitaldi batean parte hartzea. «Igande arratsaldetan, herriko gazte eta neska guztiak elkartzen ginen, elizako areto handian gitarrekin abestera. Egun horretan bildutako diru guztia Banden grebarentzat izan zen»¹¹.

Frankismoaren bilakaeran eragin zuen beste gertaera bat izan zen Burgosko Prozesua (1970). Prozesu horretan, abenduaren 3tik 9ra, gerra-kontseilu baten aurrean jarri zituzten, auzitegi militar batean, hamahiru gizon eta hiru emakume, denak ere ETako militanteak. Auzipetuetako seiri heriotza-zigorra ezarri zieten, bat absolbitu egin zuten, eta gainerakoei kartzela-zigor luzeak ezarri zizkieten. Momentu berean, ETak Alemania Federaleko kontsula bahitu zuen Donostian, nazioartean arreta pizteko kasuaren gainean.

Hasiera batean, ETaren aurkako kolpe gogorra zena erregimen frankistaren kontrako kritika bilakatu zen. Espainiako Estatuan zein nazioartean oihartzun handia izan zuen eta aurrekaririk gabeko babes-adierazpenak egin ziren. Heriotza-zigorrek espetxe-zigorrekin ordezkatu ziren, baina amnistiaren aldeko oihuak izan ziren nagusi, baita elizako hierarkiaren aldetik ere. Haien lokalak utzi zituzten bileretarako eta itxialdietarako¹². Halaber, Burgosko Prozesuak atxiloteta, tortura, kartzela-zigor eta heriotza ugari ekarri zituen.

Auzipetuetako hiru Eibarkoak ziren, eta, abenduaren 4ko manifestaldian, Guardia Zibilak tiro egin zuen suzko armekin. Roberto Pérez Jauregi Alderdi Komunistako kidea, 21 urtekoa, hil zuten, eta Manuel Gil Uriarte tiroz zauritu. Milanen ere, poliziak ikasle gazte bat hil zuen elkartasun-manifestazio batean.

11 Audio-elkarrizketa, *Drogeteniturri* (2020).

12 Besteak beste, auzipetuetako bi apaizak zirelako.

Epaiketa izan zenean, Mariarro eta Miguel Angel, bere bikotekidea, klandestinitatean militatzen ari ziren. «Gauza batek bestera darama... Gauza batek bestera darama, eta hirurogeiko hamarkadan klandestinitatean amaitu nuen. Burgosko prozesua iritsi orduko, barruraino sartuta nengoen»¹³.

Epaiketa hasi eta biharamunean, abenduaren 4an, Mari Carmen lagunarekin Eibarko manifestaziora joan ziren. Manifestazio-deialdiak ez ziren publikoak; aldiz, protestak «jauzien» modukoak ziren: adostutako lekura hurbiltzen zen jendea, eta kaleetara salto egiten zuen Guardia Zibila oldartu arte. «Gogoan dut ez zigutela Eibarrera sartzen uzten, nortasun-agiria eskatzen ziguten. Gogoratzen naiz nire lagun galiziarra eta ni oinez gindoazela, eta Isasin Guardia Zibilak bere longainekin gelditu gintuela. Guardia zibiletako bat bestearen herrikoa zen, Galiziakoa, eta esan zion ea nora gindoazen. Pentsatuta geneukan: “ez, mandatu batera joan behar dugu denda batera... Beno, ba hartu eta korrika alde egin”. Berehala joan ziren. Iritsi ginenerako manifestazioa igarota zegoen, ordurako Roberto Pérez Jauregi hil zuten». Mariarro hunkitu egin zen kale erdi-ilun haietako isiltasuna gogoratzean: «Isiltasun hura, isiltasun hura izugarria zen... mundu guztia isilik, ikaragarria zen!»¹⁴.

Mariarrok 19-20 urte zituela, Euskadiko Alderdi Komunistan (PCE-EPK) sartu zen, baina handik gutxira Komunistak erakundean hasi zen. Txatok, militantzia-kideak, hasierako garai haiek deskribatu ditu: «Maria Rosario Euskadiko Alderdi Komunistan sartu zen 1969

**“Manifestazio-deialdiak
ez ziren publikoak; aldiz,
protestak «jauzien»
modukoak ziren:
adostutako lekura
hurbiltzen zen jendea,
eta kaleetara salto egiten
zuen Guardia Zibila
oldartu arte”**

¹³ Audio-elkarrizketa, *Drogetenitturri* (2020).

¹⁴ *Ídem*.



inguruan, harekin genituen harremanetatik abiatuta. Handik urtebetera, gutxi gorabehera, Komunistak erakundearekin genituen harremanen bidez (gerora EMK¹⁵ deituko zen, eta geroago, 1991n, Zutik), eta hainbat eztabaida, ideia-trukaketa, informazio eta irakurketak sorturiko zalantzen ondorioz, Alderdi Komunistatik irtetea erabaki genuen. Garai hartan, PCEn geunden gazteak talde txikia ginen. Eibarren bazeuden batzuk ibilbide zabalagoa zutenak, baina Ermuan biltzen ginen gazteak talde txiki bat ginen, zortzi edo hamar lagun. Pertsona horien erdiek, 1970eko Burgosko Prozesua baino lehentxeago, Komunistak taldean sartzea erabaki genuen».

Alderdi guztiak saiatzen ziren konpromisoa eta lidergo-gaitasuna zuten pertsonak erakartzen. Prozesu delikatuia zen, erakunde erabat klandestinoak baitziren, eta arriskuei aurre egiteko eta konpromisoa hartzeko prest egotea eskatzen zuten.

Atzera bueltarik ez bazuen ere, Mariarrok PCEren jomugan jarraitzen zuen. Bego Vak –lagun feminista eta, garai hartan, PCEko militantea– honela kontatzen du: «Nire bikotekide ohiak arantzatxo bat bezala zeukan, alderdi guztiak jendea erakartzen ari zirelako; eta haiek jende bat zeukaten jomugan, horien artean Maria Rosario. Norbait azkarrago ibili zen, ez dut gogoratzen bere izena, EMKko ermuar batekin ezkondu zegoen (...). Mariarro lapurtu zieten».

1966ko abenduan ETAren V. Batzarra zatitu zenean Maria Rosario Komunistak taldean zebilen. Batzar horretan Bulego Politikoa kanporatu zen, printzipio abertzaleetatik aldentzea eta «sozialista-espainolista» izatea egotzita. Hasiera batean ETA-Berri izena hartu zuen, ondoren Komunistak, eta, geroago, EMK.

Euskadira mugatutako erakundea laster zabaldu zen beste probintzia batzuetara. Horretarako, alderdiak eskatuta, militanteak beste leku batzuetara joaten ziren bizitzera. «EMK Euskal Herrian jaio zen, eta gero, frankismoaren urte haietan, zabaldu egin zen... Madrilen talde bat sortu zen,

15 Euskadiko Mugimendu Komunista.

Doris Benegas¹⁶ Valladolidera joan zen, ez dakit nor joan zen Madrilera ...», dio Juantxok, Ermuko Lankidetzeta eta Elkartasun Kontseiluan Mariaroren lagun eta lankide izandakoak; alderdian inoiz parte hartu ez zuen arren, ondo ezagutzen ditu istorio horiek. Eta jarraitzen du: «Egun batean neska batek deitu zidan telefonoz: “Aizu, zu Juantxo zara? Zure telefonoa eman didate, Mariarro oso gaizki dagoela jakin dut, zerbait gehiago esango didazu? Zurekin hitz egiteko esan didate. Ermuarra naiz, 19 urterekin Bartzelonara EMK muntatzera joan nintzen eta hemen jarraitzen dut”». Mariarori tokatu zitzaion Ermuan geratzea eta alderdian aktiboki lan egitea, batez ere langile-borrokari, bai eta gizarte mugimenduetan ere.

EMK alderdi marxista-leninista zen, 1972tik 1975era Mao Tse-Tungen ideiek eta Iraultza Kulturalak eragin handia izan zuen taldean. Momentu hartan, oraindik ez zen gauza jakina zernolako errepresioa gauzatzen zen Txinan iraultza horren izenean. Baina iragan maoista hori markatuta geratu zen EMKren historian, eta «txinatar» gisa ezagutu izan zituzten beti.

Diktadurak milaka gorpu ekarri zituen, milaka pertsona errepresaliatu eta erbesteratu zituzten, eta protesta egiteko eta mobilizatzeko beldur itzela zegoen. Errepresioa ez zen apaldu; aitzitik, diktadorearen azken hatsa arte oso bortitza izan zen. 1975eko irailaren 27an, Franco hil baino bi hilabete lehenago, ETAko bi militante eta FRAPe¹⁷ hiru fusilatu zituzten. Ezker iraultzaileko militantzia, batez ere, gazte errebelde antifaxistek osatzen zuten. Gazte horiek klandestinitatea aukeratu zuten eta atxilotetak, jazarpena, tortura, kartzela, heriotza-zigorrak edo erbestea jasateko arrisku larria zuten. Mariarro ez zuten inoiz atxilotu, baina denek ez zuten zorte bera izan. 1975eko otsailaren 2ko prentsak dioen eran, Guardia Zibilak hamabi lagun atxilotu zituen Ermuan propaganda subertsiboa zabaltzea egotzita, eta «fotokopiagailu bat,

16 Doris Benegas abokatu feminista, sindikalista eta politikoa izan zen. Mugimendu Komunistan hasi zen militatzen, eta 21 urterekin erakundeak Valladolidera bidali zuen. Bertan, funtsezkoa izan zen frankismoaren kontrako borrokan. 1985ean, Unidad Popular Castellana sortu zuen.

17 Frente Revolucionario Antifascista y Antipatriota.

milioi erdi pezetakoa, idazmakina bat eta propaganda komunista ugari konfiskatu zizkieten»¹⁸.

Mariarro eta Mari Carmen lagunak eta alderdikideak ziren, eta propagandaz arduratzen ziren. «Arratsaldeetan lanik egiten ez genuenez, panfletoak egiten genituen leku klandestino batean. Fotokopiagailuarekin aldizkaritxo¹⁹ bat ere ateratzen genuen, eta gero banatu». Hasieran aldameneko herrira joaten ziren: «Panfletoak botatzera Eibarko fabriketara joaten ginen, gainera bagenekien Ermuko jendea hara joaten zela lanera. Beste batzuetan postontzietan uzten genituen, poliziarekin kontuz ibili behar ginen... Goizeko 8ak baino lehen egiten nuen, 8etan bankura joaten bainintzen lanera. Eta amari mendira nindoala esaten nion»²⁰.

**“Buzoneoa goizeko 8ak
baino lehen egiten nuen,
8etan bankura joaten
bainintzen lanera. Eta
amari mendira nindoala
esaten nion”**

Militantzia-ordutegiak oso zorrotzak ziren; Amelia militantzia-kideak kontatu digu gaueko bederatzi edo hamarretan biltzen zirela: «Lauetan jaikitzen nintzen eta agian goizeko ordu biak edo hirurak arte egoten ginen une hartako gai politikoak eztabaidatzen: honetaz, hartaz, marxismoaz, mundu hau aldatzeko moduez». Militantzia eta familia-bizitza uztartzea zaila zen, eta Mariarrok ezkontzea erabaki zuen arazoak saihesteko. Bere anaia Alejandrok dioenez, «etxetik alde egin behar zuen. Ezin zituen lana, kalea eta militantzia uztartu aitaren eta amaren teilatupean bizita, ordutegi jakin batzuk eskatzen baitzituzten. Esaten zioten, “hemen, 21:30etan afaltzen da”, eta ordu horretan afari bat zuen, edo bilera bat, edo zineforuma zegoen... Ezin zuen horrela ibili. “Ezkondu egingo naiz, ezin dut horrela jarraitu, Alejandro”».

18 Bizkaian, hamabi atxilotu, propaganda subertsiboa leporatuta (1975eko otsaila). *El Periódico Mediterráneo*, 11.or. Ermuko Udal Artxibategia.

19 Zer egin EMKko aldizkaritxo.

20 Audio-elkarriketa, *Drogetenitturri* (2020).

**“Atxiloketetan
ondorio larriagorik
izan ez zedin, ezizena
erabiltzen zuten, ez
zituzten beren lagunen
izenak ezagutzen.
«Ana Arrigorri,
hori zen nire izena
klandestinitatean»”**

Alderdian, harremanak tentuz eta diskrezioz egiten ziren; segurtasun-neurriak ezinbestekoak ziren. Ameliak klandestinitatean ezagutu zuen Mariarro: «Mugimendu Komunistako zelula batean ezagutu nuen. Eta, nahiz eta biok Ermuan bizi, klandestinitatean ikusten genuen elkar, alderdiko eztabaida-taldeetan. Baina gainerakoan, kalean, ez genuen harremanik, segurtasunagatik. Ez genuen elkar agurtzen, arrotzak bagina bezala. Arriskua ez zen polizia bakarrik, txibatoak ere hor zeuden».

Txatok klandestinitateko harremanei buruzko errealitate hori berresten du: «Kalean elkar ikusten genuen arren, bileretan baino ez genuen harremanik. Besteekin erlazionatzea saihesten zenuen... Klandestinitatearen baldintzak ziren.

Horrek asko mugatzen zuen harreman pertsonal oro. Klandestinitateak frankismoaren aurkako jardueran oinarritutako harremanak izatera behartzen zuen. Franco hil arte, mendian edota leku jakin batzuetan egiten ziren bileretan egoten ginen. Hortik kanpo ez zegoen harremanik».

Atxiloketetan ondorio larriagorik izan ez zedin, ezizena erabiltzen zuten, ez zituzten beren lagunen izenak ezagutzen. Hainbat urte geroago, Mariarro Ondarruko Arrigorri hondartzan zegoen Rosarekin –Emakumeen Asanbladako militantearekin– eta beste lagun batzuekin. Bat-batean Mariarrok «Ana Arrigorri, hori zen nire izena klandestinitatean» bota zien. Ondo gogoratzen du Rosak, adiskidetasun luze baten ondoren horren berri izateaz harrituta.

Militantziak konpromiso handia eskatzen zuen: «Militantzia bikoitza edo hirukoitza zen, eta alderdiak jarraibide politikoak ematen zizkizun, zer egin eta nola. Adibidez, lan-munduan, CCOOn egon ginen, eta gero bota egin gintuzten ezkertiarregiak ginelako, eta, aldi berean, gizarte-mugimenduetan militatzen ari ginelako»²¹.

21 Audio-elkarrizketa, *Drogetenitturri* (2020).

«Alderdian erabaki zuten Ermuan ere egin behar zela zerbait, ez Eibarren bakarrik, eta lanean hasi ginen herritarren mugimenduan, herriko gauzetan»²². 1968an ARCE –Ermuko Kultur eta Aisialdi Elkartea– eratuta zegoen jada, baina «garai hartan nuklearren gaia jorratu genuen, hiru zentral nuklear egin behar zituztelako, eta Ermua hiruren zirkuluan sartzen zen»²³. Une horretatik aurrera, nuklearren aurka borrokatzen hasi ziren, baita kultur jarduerak egiten ere.

Mariarroren beste militantzia-gune garrantzitsu bat Familien Elkartea izan zen. Talde mistoa zen, baina emakume askok hartzen zuten parte bertan. Eta auzo-mugimendu baten buru izan zen, Ermua bizigarriago baten alde borrokatuz.

22 *Ídem.*

23 *Ídem.*



ermuko herri kandida
DEUTXA



4. Legez kanpo egotetik legeztatzeraz. Demokrazia eta parte-hartzea

Franco hil ondoren, 1975eko azaroan, eta ezkerreko erakundeak gogor borrokatu ziren arren, ez zen haustura demokratikorik iritsi, «Trantsizioa» baizik.

Erreforma-aldi hartan, monarkia parlamentarioa ezarri zen gobernu gisa. Konstituzio berrian, «Espainiaren batasuna» aldarrikatzeaz gain, Amnistiaren lege bat iragarri zen, preso politikoak askatuko zituen. Baina, aldi berean, zigortu gabe geratu ziren gizateriaren aurkako krimenak. Horrela, Espainiako diktaduratik demokraziarako trantsizioa ez zen oinarritu egian, justizian eta erreparazioan. Bide-bazter eta hobi komunetako milaka gorpuak ezkutatzeaz eta ahazteaz arduratu zen. Askok han jarraitzen dute oraindik.

Indarrik erreakzionarioenen presiopean erreforma garrantzitsuak hitzartu ziren, baina ez ziren aski. 1977an Espainiako Alderdi Komunista (PCE) legeztatu zen, eta, hilabete batzuk geroago, ezker erradikaleko beste alderdi batzuk ere bai (MCE-EMK, besteak beste); 1977ko ekainean hauteskunde konstituziogileak egin ziren; 1978an Konstituzioa onartzeko erreferenduma

(Euskadin baztertu egin zen), eta 1977ko martxoan eta apirilean, hurrenez hurren, hauteskunde orokorrak eta udal-hauteskundeak egin ziren.

Aurrerapen garrantzitsuak ere gertatu ziren: «Aldaketak izan ziren, noski. Aldaketak askatasunetan eta giza eskubideetan, berme juridikoetan, eskubide sozialetan, irakaskuntzaren demokratizazioan, emakumeen parte-hartze sozialean...», dio Eugenio del Riok, Komunistak eta EMK taldeen sortzaileak²⁴.

Legeztatzearen ondorioz, alderdiek egoera berrira egokitu behar izan zuten. Mariarrok eta bere alderdikideek denbora asko eskaintzen zioten formakuntzari. «Uda batzuetan, Eubako apaizen komentura joan ginen ikastera. Bertan, alderdiko buruek prestakuntza ematen ziguten. Klandestinitatea bukatu zen, eta borroka ez zen panfletoak botatzea, ikasi beharra zegoen. Prestakuntza eta argudioak behar zenituen lantegian eztabaidatzeko eta jendea konbentzitzeko», dio Juliok, EMKko militante eta Mariarro eta Miguel Angelen lagunak.

Herri Hautagaitza

Ermuan, 1977ko udal hauteskundeak iritsi zirenean, herri mugimendu aktibo eta sendo bat zegoen, eta emakumeek zeregin garrantzitsua jokatzeko zuten bertan. Ezker erradikaleko alderdiek eta Familien Elkartek uste zuten hauteskundeak aukera aprobeztatu behar zela.

Hala, Herri Hautagaitza sortu zen, Miguel Angel zerrendaburu. Maria Rosario zerrendaburu izateko aukera planteatu zen, baina, azkenean, haren bikotekidea aukeratu zuten.

Txatok dioenez, «Familien Elkarteko lanaren emaitza izan zen Herri Hautagaitza. San Lorentzo auzoan abiatu zen, hirigintza-arazo larriak zeudelako eta zerbitzuak falta zirelako. Hiriko arazoak

²⁴ El Diario.es, 2015eko azaroak 21.

Udalari helarazi eta auzoetako arazoak eztabaidatzeko leku bat sortu nahi zen; horrela aurkeztu zen CPE hautagaitza²⁵, eta hiru zinegotzi lortu zituen Udalean, oso emaitza duina».

«Maria Rosariok, beste pertsona batzuekin batera feminismoari denbora gehiago eskaintzeaz hausnartu ostean, ez aurkeztea erabaki zuen», gehitu du Txatok. Berak hautagaitza feminista baten aldeko apustua egiten zuen, baina une hartan ez zen posible izan. 1987an iritsi zen ordea, eta, orduan bai, Mariarro zerrendaburu aurkeztu zen.

Julioaren ustez, «gehien motibatzen zuena feminismoa izan arren, hasieran, herritarren mugimenduan eragin nahi zuen. Berak herri honen errealitatea haztatu zuelako, eta, nire ustez, herriko jende guztia mobilizatzeko beharraz jabetu zen. Eta herri-hautagaitzaren garaipenaren zati bat hortik etorri zen, ezta? Auzoetan eta Familien Elkarteetan jende askorekin konektatzeko gai izan zirelako. Ikaragarria zen ikustea zenbat jendek ordaintzen zuten kuota, dena oso handia zen».

Maria Rosario berak azaldu zuen zergatik ez zen udaletxean sartu: «Gure alderditik honako hau planteatu genuen: orain demokrazia formalean gaude, udaletan sartu behar dugu, noski, baina inoiz ezin dugu kaleko mugimendua utzi. Hau da, ez da Familien Elkartea utzi behar, herritarren bultzadak emango baitu Udalari gehiago ateratzen segitzeko aukera (...). Ez genekien nor egongo zen hor. Eta zer egin genuen? Ba ni bezalako jendea, ausartagoa edo, ba “zuk ez duzu udaletxean egon behar”, “errazagoa da Udalean sartzea kanpokoak mantentzea baino”. Kanpokoak lanean, mantentzen, militatzen jarraitu behar du»²⁶.

Ezkerreko hautagaitzak Herri Hautagaitza, PCE, Langileen Erakunde Iraultzailea (ORT) eta Herri Batasuna (HB) izan ziren. Herri Hautagaitza hirugarren indarra izan zen, PSEren eta Eusko Alderdi Jeltzalearen (EAJ) atzetik. 1.126 botorekin hiru zinegotzi lortu zituen, PCEk bezala;

25 Candidatura Popular de Ermua.

26 Audio-elkarrizketa, *Drogetenitturri* (2020).

HBk, berriz, zinegotzi bat lortu zuen. Beraz, Bego V.-ren hitzetan, «ezkerreko zazpi pertsona zeuden eta horrek herriaren borroken tradizioari erantzuten zion. PSOEk bost baino ez zituen, Julian San Cristobal buru zela; EAJren hautagaitzak lortu zituen boto gehien». Alkatea ez zen Ermukoa, «ez zekien Zubiaurre kalea zein zen ere. Izugarria da, zu bizi guztian zure herriaren alde borrokan, eta tipo bat iristen da, alkatea, kale nagusia nola deitzen den ere ez dakiena. Baina gizon hori trebe aritu zen, denoi eman zizkigulako erantzukizunak».



Juantxoren ustez, arduren banaketa hori elkarte-mugimenduaren indarraren emaitza izan zen: «Urte horietan zuten indarrarekin, Udala partekatzea lortu zuten; HBk adibidez, zinegotzi bakarra zuen, baina udal erantzukizuna zuen. Gaur egun, EH Bilduk hiru ditu edo Podemosek beste horrenbeste, eta ez diete ezer egiten uzten, ez diete ezta arnasa hartzen uzten ere».

Miguel Angel Mariaroren bikotekidea izateak zeresana eman zuen. Bego V.-k gogoratzen du alderdiko batzuek esaten ziotela «Maria Rosario Miguel Angelen agintaria da, berak ematen ditu aginduak». Bego V. PCEko zinegotzi bezala sartu zen eta Miguel Angelekin batera egindako lana gogoratzen du. «Osasun-zinegotzia izan zen, orduan garrantzi handia zuen, are gehiago Ermuan, ia anbulatoriorik ere ez geneukan eta. Hirigintzako zinegotzia nintzen, baina Osasun Batzordean nengoen; beraz, garai hartan, lan gehiago egin nuen Miguel Angelekin Mariarrokekin baino».

Demokrazia parte-hartzailea

«Udaletan sartzearekin batera, kaleko borroka baztertu zen. Guk hor jarraitzen genuen, baina ez ginen asko. Herri mugimendua alde batera uzten joan zen. Jakina, udaletik ere lortu ziren gauzak, eta jendearen pentsamoldea aldatzen joan zen: “Udala badugu, gure ordezkariak aukeratzen ditugu, eta haiek dira...”, esaten zizuten, eta baita ere: “lau urtean behin botoa eman, eta kito” eta guk, “ez, ez, gauza bat da demokrazia ordezkatzaila eta beste bat demokrazia parte-hartzailea. Guk parte hartu nahi dugu, gure gauzetan herritar gisa parte hartzeko eskubidea dugu. Zuek botoa eman eta zuek erabakiko duzue, baina guk iritzia emateko eskubidea dugu”. Lan-batzorde guztiak irekiak izatea lortu genuen. Batzordeetan jendeak parte har zezakeen. Hirigintza Batzordean, zinegotzi guztiekin, arkitektoarekin, beste harekin... nengoen. Miguel Angel Osasun Batzordeko zinegotzia zen, batzorde horretako zinegotzi bakarra, eta berarekin herriko sei edo zazpi emakume zeuden. Gaur egun horrelako egoera bat sinestezina da, baina hala izan zen»²⁷. Baina horrek ez zuen gehiegi iraun, Mariarrok barrez gogoratu zuenez: «Gero, bigarren legealdian, ia ostikoka bota ninduten»²⁸.

Mariarrok sutsuki bultzatzen zuen demokrazia parte-hartzailea, bere pentsatzeko eta jarduteko moduaren zutabeetako bat izan zen hainbat urtez: «Benetan sinesten dut demokrazia parte-hartzailean, parte-hartzea egon behar da, jendeari entzun behar zaio. Une politiko honetan aldaketa bat gertatu behar da, eta aldaketa hori horretara bideratu behar da, arlo publikoan jendeak kontrola eta parte hartzea izatera». Pandemiaren osteko egoera politiko eta sozialari dagokionez, esan zuen: «Makinariak koipeztatuta egon behar du, jendeak zerbait egin ahal izateko. Ezin ditugu gure bizitzak politikarien esku utzi, eta utzikeria handia egon da»²⁹.

27 Audio-elkarriketa, *Drogeteniturrri* (2020).

28 *Ídem*.

29 *Ídem*.

Udal-baliabideak herriarenak dira

Instituzioetan zein kalean, parte-hartzearen defentsak hurrengo belaunaldiak markatu zituen. Uste zuten erakundeekiko konfrontazio hutsa eginda baino emaitza hobekak lor zitezkeela bi borroka-moduak uztartuta.

Juantxok kontatu digu zer-nolako esperientzia izan zuen gai horren inguruan, eta Mariarrok emandako babesa ere deskribatu du: «Adibidez, lehen Gazte Asanblada sortu genuenean, Mariarrok asko lagundu zigun dirulaguntzak lortzen eta Ermuko Gaztetxearen aldeko borrokan. 1980ko hamarkadaren erdialdea zen, eta bera ez zegoen asanbladan, noski, adinagatik ez zitzaizkiolako tokatzen; baina erabateko babesa eman zigun. Gaztetxearen aldeko emakume-talde bat bultzatu zuen. Betidanik eztabaidatu da kaleko borrokaren eta erakundearen dirulaguntzak erabiltzearen arteko talka. Guk argi izan genuen: eskubidea genuen kaleko borrokarekin jarraitzeko, hori baitzen gure bokazioa, eta, aldi berean, udal-erakundearen dirulaguntzak eskatzeko. Eta hori posible izan zen eredu horiek bagenituelako herrian. Erakundeetan zerbitzu batzuk egon behar direla pentsatzeko eskubidea dugu; modu parte-hartzaile eta autogestionatuan kudeatuak; eta, noski, erakundeei dagokiela zerbitzu horiek sortzea». Pentsamolde horrek talka egiten zuen beste udalerri batzuetako errealitatearekin, «ez zuten beti ulertzen; “nolatan joaten zarete udaletxera gaztetxea eskatzera; PSOEek du gehiengoa udaletxean, ez? GALen urteetan gainera”». Orduko hartan, eskaera ez zieten onartu: «Ez ziguten Gaztetxea eman, okupatu egin behar izan genuen, Guardia Zibila bidali ziguten, epaiketara eramanez gintuzten, baina gure eskaria hor zegoen».

Egoera hori bera beste borroka batzuetan errepikatu zen: «Intsumisio-mugimenduetarekin, gauza bera. Guk aurrez aurreko borroka dugu Estatuaren eta Gobernuaren aurka, baina esan genuen, “ez, hemen beste gizarte mota bat lortzeko lanean ari gara, sistemarekin amaitzeko eta gizarte desmilitarizatu bat sortzeko. Eta uste dugu hau gizarte osoaren onerako dela, beraz, gizarte-baliabideak udalean badaude...” eta bertara joan eta laguntzak eskatu genituen. Kakitzat-en izenean, dirua eskatu eta lortu egin genuen. Udal-azpiegiturretara sartzen uzten ziguten, indar hori zegoelako, jakina; eta horrek ez zuen inolaz ere gure diskurtsoa, gure praktika baldintzatzen», gogoratzen du Juantxok.

Komite Internazionalistei dagokienez, Margak –Mariaroren laguna eta Emakumeen Asanbladako militantea– udal-dirulaguntzak erabiltzeko eskubidea defendatzen du, nahiz eta «beste toki batzuetan ez zuten ulertzen; uste baitzuten hori norbere burua saltzea zela. Baina hori ez da horrela. Gogoan dut liburuxka bat atera genuela, Mariarrok ere parte hartu zuen bertan. Merkataritza Libreko Itunen aurkako akordio bat zen eta Udalaren zigiluarekin atera zen, dirua eskatu geniolako. Panfleto hori goiko PSOEra iritsi zen, ez herrikora, herrikoek ez zuten jakin. Baina, Autonomia Erkidegoko kupulan ikusi zutenean esan zuten, “baina nola lagundu ahal izan duzue hori diruz? Ez al zarete konturatu zer jartzen duen panfletoan?”. Eta izugarri haserretu ziren».

Juantxoren ustez, gai horretan Mariarrok eskolasortu zuen bere egiteko moduarekin. Auzo-mugimendutik «izugarrizko indarra garatu zen, eta horrek, gero, egiteko modu batzuk sortu ditu herrian, nik uste». Eta udal-baliabideen erabilerari dagokionez, honako hau gaineratu du: «Gu eskola horretan hazi ginen eta gure praktikak arrazoia ematen zigun».



Margak ere ideia bera defendatu du: «Mariaroren borroka-moduarekin zein bere pentsamendu politikoarekin zerikusia du. Hor, eskola sortu zuen dudarik gabe. Ermuan, askok argi geneukan Udalaren aurrekontuak gureak zirela, eta hor zegoen dirua gure borroketarako ere bazela, nahiz eta gobernu-organoan ez egon, eta hauteskundeak galdu. Gu borroka-eragileak ginen, eragile politikoak, eta gure dirua eskatzen genuen gure borroketarako; baita Udalaren edo udal-gobernuko partaideen iritzien aurka joateko ere».

Joanak, Nushu-Emakume Gazteok taldeko kideak, sentsazio bera du Abeletzeko Egoitzarekin. «Bai Egoitza bai Kontseilua, biak dira publikoak, instituzioei lotuta daude. Guk apur bat galdu dugula uste dut, edo nik behintzat bai: erakundeak arrotzak direnez, ez direla gureak sentitzen dugu. Eta Mariarrok “nirea da”, eta Kontseiluarekin “gurea da” defendatzen zuen, ez zuen hori sekula ahazten. Udaletxean, Kontseilua Udalaren organo bat zela esaten bazuten ere, Mariaroren mezua argia zen: Kontseilua gurea da, hau da, gurea, herriarena».

1994an, *Leioako III. Jardunaldi Feministetan*, Ermuko Emakumeen Asanbladak borroka-modu hori defendatu zuen «Ermua, gure esperientzia» ponentzian. Instituzioetan parte hartzea defendatzen zuten, 1991n Kontseilua sortu zenetik, bertan izan zuten borroka-esperientziatik abiatuta:

«Guk Emakumearen Udal Kontseilua benetako botere-organo bihurtzea nahi izan dugu. Organo aholku-emailea izan arren, eta ez betearazlea, botere instituzionala eta emakumeak topatzeko gunea izan dadin nahi dugu; eta noski, indarrak emakumeen aldekoak izatea. Gainera, emakumeen indarrak esparru propioak behar ditu: organikoak, Udal Kontseilua bezala; eta baita espazialak ere, Emakumearen Etxea».

«Ponentziaren ideia Mariarrok sustatu zuen. Horregatik diot asko konpartitu genuela: ni lan instituzionalean nengoen, batez ere, eta bera gehiago mugimenduan; Bego³⁰ teknikaria zen,

30 Mariaroren lagunaz, Bego Fernández-ez ari da, Ermuko Emakumeen Asanbladako kidea eta Berdintasun Teknikaria

baina mugimenduan militatzen zuen», dio Bego V.-k. Hirurek hartu zuten parte Emakumeen Asanbladak eztabaidatu eta onartutako ponentzian. Atzera begira, lankidetzaren horrek bere fruituak eman zituela ikusten da.

Emakumeen hautagaitza feminista

1987ko hauteskundeetan, Emakumeen Asanbladak emakumez osatutako hautagaitza feminista aurkeztea erabaki zuen; emakumeen beharrak eta eskubideak agenda publikoan jarri eta gai politiko garrantzitsu bezala tratatzeko. «Vamos a parir un pueblo distinto – Herri berri bat erdituko dugu» lelopean, soilik emakumez osatutako lehen hautagaitza izan zen Estatu osoan.

Mariarroken bokazio nagusia kaleetan borrokatzea eta hortik abiatuta arlo instituzionalean parte hartzea bazen ere, oraingoan zerrendaburu aurkeztu zen. Mariarrok berak jauzi instituzional horren beharra aztertu zuen: «1987an, udal hauteskundeak iristear zeudela, Emakumeen Asanbladan ia urtebete generaman borrokan: Emakumeak Arreta Emateko Bulegoa eta Tratu Txarrak Jasan zituzten Emakumeentzako Babeslekua eskatzen genituen. Borroka horretan, Asanbladatik kanpoko emakumeak inplikatzeko lortu genuen: batzuk Emakumearen Promozio Zentrokoak ziren, eta beste batzuek interesa zuten gai horretan, besterik gabe. Gainera, emakume gazteen talde bat zegoen Gaztetxeko Gazte Asanbladan, eta neska gazte gisa ere beren arazoak lantzen ari ziren. Batzuen eta besteen artean pentsatu genuen nahiko une egokia izan zitekeela udal-hauteskundeak aprobetxatzeko, eta herrian feminismoa bultzatzeko», (FERNANDEZ, 2014).

Ez ziren udaletxera sartu, nahiz eta zinegotzi³¹ bat lortzetik oso gertu geratu. Hala ere, beste alderdi batzuek beren zerrendetan emakume gehiago jartzeko balio izan zuen, baita emakumeen

31 Audio-elkarrizketa, *Drogeteniturrri* (2020).

Mariarro, feminismoan bidaide eta zubigile. Memoria kolektiboa ehuntzen

eta gizonen berdintasunari buruzko gaiak hauteskunde-programetan presentzia handiagoa izateko ere.

Gerora sortu ziren zerrenden erreferente izan zen: 1991n, Ermuko gazteriak hautagaitza propioa aurkeztu zuen «Ermuari buelta emango diogu» lelopean; eta 1995ean, Plazandreok talde feminista aurkeztu zen Donostiako Udaleran eta Gipuzkoako Foru Hauteskundeetara.

Ermukoak izan zineten lehenak
Mariarro ia zinegotzi
Gero Plaztarrek hara! esan
Eta feminismoa banderatzat hartuz
Zenbat kanpaina, dena urgentzia!
80tik aurrera konspiratzen
Emakumeak libre eta irabazten
Mariarro beti erreferente
Eta zure moduak gustatzen zitzaizkigun
Tinko eta aldi berean dotore
Inoiz ez zenuen nahikoa³²

32 Plazandreok taldeko militante Asun Urbietak Mariarroren omenez egindako abestiaren zati bat. Jatorrizkoa, gaztelaniaz: *Las de Ermua fuisteis las primeras / Mariarro casi concejal / Luego las Plaz dijimos ¡hala! / Y el feminismo por bandera. / ¡Cuántas campañas, todo urgente! / Desde el 80 conspirando / Mujeres libres y ganando / Mariarro siempre referente / Y nos gustaban tus maneras / Firme a la vez que elegante / Nunca tenías bastante.*



vamos a parir
un pueblo distinto



AMNISTIA A MUJERES
NO MÁS JUICIOS POR ABORTO



5. Bigarren olatu feminista Ermura iritsi zenekoa

1970eko hamarkadaren erdialdean hurbildu zen Mariarro feminismora, estatu-mailan feminismoaren bigarren olatua piztu zenean.

1975an iritsi zen, azkenik, diktadorearen heriotza, eta urte hori bera Emakumearen Nazioarteko Urte izendatu zuten Nazio Batuek. Aldeko egoera hori aprobetxatuz, urte bereko abenduan, Emakumearen Askapenerako I. Jardunaldiak antolatu ziren Madrilen. Bertan, Estatuko hainbat lekutako bostehun emakume inguru bildu ziren; mugimendu feminista jendaurrean agertzeko lehen urratsa izan zen Estatuan. Lan hori egiten ari ziren hainbat erakunderi beste batzuk gehitu zitzaizkien, sortu berriak.

Hala ere, Franco hil eta egun gutxira, Erregeak indultu partziala iragarri zuen; eta beraz, ez zen amnistia orokorrik egon. Egoera berri horrek desadostasunak eragin zituen emakumeen borrokaren lehentasunei buruzko eztabaidan. Amnistia orokorrean ala emakumeen egoeran zentratu, hor

zeuden desadostasunak. Eta, noski, orobat eskatzen zen amnistia hori hedatzea legediak delitutzat jotzen zituen ekintzetara, hala nola adulterioa, abortua, antisorgailuen erabilera, prostituzioa, homosexualitatea, eta abar. Nahiz eta jardunaldien amaierako komunikatua gehiago zentratu zen errepresioaren kontrako aldarrikapen politikoetan, eta ez hainbeste izaera feministan, egia esan, eztabaidek nolabaiteko eragina izan zuten ezkerreko erakunde batzuetan. Eta jardunaldietatik aurrera, beren diskurtsoa feministagoa izaten hasi zen.

1975ean, bestalde, Unescoren Amics elkarte bartzelonarrak –frankismo-garaian, 1960an zehazki, baimendutako irabazi-asmorik gabeko erakundea– Departament de la Dona sortu zuen. Gobernu kanpoko elkarte legal horren babesean, emakume batzuk bildu eta Emakumearen I. Jardunaldi Katalanak antolatzen hasi ziren, 1976ko maiatzean³³.

Jardunaldi horietan 4.000 pertsona inguruk hartu zuten parte, eta Kataluniako mugimendu feministaren bigarren olatua hala sortu zen. Sekulako eragina izan zuen herrialde osoan.

Pixkanaka, Estatu osoko emakume-taldeek osatutako sare gisa antolatu zen feminismoa. Euskadin ere hala gertatu zen, talde feminista ugari sortu ziren.

Ordura arte, klase-borroka zen alderdi ezkertiarren lehentasuna, eta uste zuten beste diskriminazio guztiak berez konponduko zirela gizarte sozialista edo komunistan. Emakumearen I. Jardunaldi Katalanen ostean, eta feminismoak izandako gorakadaren eraginez, tesi horiek berrikusten eta alderdien barruan emakume-taldeak sortzen hasi ziren.

Kataluniako Mugimendu Komunistako militanteek, jardunaldietan parte hartu eta gero, alderdiaren egituraren barruan emakume gisa antolatzen hastea erabaki zuten. Eta hori «erabat

33 *Primeras Jornadas Catalanas de la Mujer. Mayo de 1976: Testimonios en primera persona*. Iturria: Bartzelonako Udalaren webgunea, <https://ajuntament.barcelona.cat/arxiunicipal/arxiuhistoric/es/primeras-jornadas-catalanas-de-la-mujer-mayo-de-1976>


ezohikoa zen garai hartan» (Miner, 2020). Empar Pineda, MCCko militantea, mugimendu feministaren erreferente eta Lesbianen Kolektibo Feministaren sortzaileetako bat izan zen. Jardunaldietako eztabaida eta bizipenek sekulako eragina izan zuten berarengan, beste hainbat emakume ezkertiarrengan bezala.

Pineda izan zen Mariarroken erreferente nagusia feminismoaren barruan. Bere gaitasun teorikoa, pentsamendu kritikoa, eta emakumeen eskubideen aldeko borroka nekaezina –bereziki, abortatzeko eskubidearen eta sexu-askatasunaren aldekoa– ikaskuntza-iturri izan ziren berarentzat eta beste askorentzat.

Feminismoaren esnatzea

Alderdiaren bitartez iritsi zen Mariarro feminismora. Beste emakume ezkertiar askok bezala, hasieran zalantza handiak zituen borroka horren egokitasunaz. Ameliak alderdi barruko eztabaidak gogoratzen ditu, «alderdietan barruko eta kanpoko emakume batzuk emakume gisa antolatu behar genuela pentsatzen hasi zirenean, Maria Rosario aurka zegoen. Ez zion zentzurik ikusten; alderdiko pertsona bat zen eta guztiz ahaldundua, ezin zuen ulertu zergatik elkartu behar genuen. Gogoan dut eztabaida handiak izan genituela zelulan, gizonak ere ez zutelako beharrik ikusten. Baina berehala aldatu zen, e?» Eta gehitzen du: «Guk fabrikan diskriminazio gogorrek bizi genituen, maila guztietan. Orduan nik hari esaten nion antolatu egin behar genuela, gizonak, ezkertiarrek izanda ere, alde guztietatik zapaltzen gintuztelako. Guk fabrikan argi ikusten genuen: guk gauzengatik borrokatzen genuen eta lortzen zirenean, haiek sinatu eta botata uzten gintuzten».

Alderdi barruko eztabaidak ez ziren alferrikakoak izan, eta, Mariarrok berak kontatu zuen bezala, bera esnatu egin zen: «Ni feminismora sartu nintzen, gure alderdia iturri aurrerakoi guztietatik edaten ari zelako. Feminismoa iritsi zenean bonba bat izan zen, argi bat piztu zitzaigun guztioi. Esnatzen hasi ginen, aldi berean esnatzen ari ziren beste emakume independente batzuk ere,



eta elkarte feministak sortu ziren: hemen, zehazki, Bizkaiko Emakumeen Asanblada, baina baita herrietako taldeak ere»³⁴.

Mariarrentzat, eta ezkerreko milaka emakumerentzat, feminismoa ez zen militantzia erantsi bat izan. Mundua, harremanak, politika eta borroka ulertzeko modu berri bat zen, beste emakume batzuen eskutik bidea egiten joan zena.

1977ko abenduan, Euskadiko Emakumeen I. Jardunaldiak antolatu ziren; 3.000 emakumek hartu zuten parte, tartean Mariarrok. Antolaketa Bizkaiko Emakumeen Asanbladaren gain egon zen batez ere; koordinazioan, aldiz, beste talde batzuek ere hartu zuten parte (EPELDE et al., 2015). Lau egunez, gai hauek eztabaidatu ziren: sexualitatea, indarkeria, abortua, kontrazepzioa, etxeko lanak, «kanpoko» lana, mugimenduaren ezaugarriak, patriarkatua, familia, militantzia bikoitza, emakumea eta politika, emakumea eta krisi ekonomikoa edo prostituzioa.

Lehen borrokak

Justa Montero Madrilgo aktibista feministaren hitzetan, «frankismoak eta diktadurak erabat ukatu zituzten eskubide guztiak, baita emakumeak subjektu gisa aitortzea ere», (MONTERO, 2022).

34 Audio-elkarrizketa, *Drogetenitturri* (2020).

«Dena egiteko zegoen, abortuaren, dibortzioaren, emakumeen aurkako indarkeriaren eta abarren alde borrokatu behar genuen ...»³⁵. Adulterioa zigortuta zegoen (batez ere emakumeen kasuan); dibortzio-legea indargabetuta; debekatuta zegoen abortatzeko eta jaiotza-tasa kontrolatzeko metodoak zabaltzea eta saltzea; indarkeria matxistari buruz ez zen hitz egiten, eta ez zen gizarte-arazo gisa hartzen; lan-arloan diskriminazio handiak zeuden; etxeko lanak eta erreprodukzio-lanak emakumeen ardura zeuden eta lanaldi bikoitzak izatera behartzen zituzten... Zalantzarik gabe, feminismoan murgildu zirenek zeregin handia zuten aurretik. Baina, borrokarako arrazoirik ez zen falta, eta, gainera, antolatzeke zein sortzeko gaitasuna eta gogoia zegoen.

«1970eko hamarkadaren amaieran, beste euskal udalerrri batzuetan bezala, Emakumeen Asanblada sortu zen Ermuan ere. Ekimen horren bultzatzaile gehienek harremana izan zuten Bilboko mugimendu feministarekin unibertsitate-garaian. Udalerrira itzultzean, Familien Elkarteko kide batzuen parte-hartze aktiboarekin eta proiektu berriekin topo egin zuten. Denbora-tarte labur batean, Familien Elkartearen inguruan biltzen ziren emakumeek erabaki bat hartu zuten: emakumeek lan-munduan jasaten zuten diskriminaziora bideratuko zituzten indarrak, haietako asko herriko lantegietan lanean hasi baitziren.

Beste emakume talde bat Ermuko Emakumeen Asanblada izango zena antolatzen joan zen. Talde horiek nor bere aldetik jardun zuten hasieran, baina gutxi iraun zuen horrek. Herriko emakume gazte bat bortxatu zutela eta, bi taldeek bat egin zuten gertaera horri berehala erantzuteko, eta emakumeen eskubideen aldeko borrokan bide luzea egin zuten elkarrekin. Horrela, Ermuko Emakumeen Asanblada sortu zen, hasieratik Bizkaiko Emakumeen Asanbladari lotuta egon zena», (BALTAR, 2009).

«Ezkerreko alderdietatik gentozen; frankismoaren aurka borrokatzera ohituta geunden; *Bigarren sexua* irakurria genuen; teoria feministan trebatzeko gogoz geunden; eta gure eskubideak aldarrikatzeko beharra genuen, hala nola gure gorputzaz gozatzea, antisorgailuak erabili ahal

35 *Ídem*.

izatea, abortatzeko eskubidea eta dibortziorako eskubidea izatea, amatasuna eta sexualitatea desberdintzea, eta ukatu zitzaizkigun beste gauza asko», azaltzen du Mariarrok elkarrizketa batean, (EMAKUNDE, 2013).

Gure gorputzen gainean erabakitzeako eskubidea

Emakumeen asanbladak sortu eta gutxira, gertaera bat izan zen, eta asko eragin zuen gizartean: Basauriko hamar emakume eta gizon bat atxilotu zituzten abortatzeagatik, abortua bultzatzeagatik edo abortua praktikatzegatik. 1976ko urria zen. Epaiketa hiru urte geroago egin zen, eta orduan iritsi zen kasua Bizkaiko Emakumeen Asanbladara. «Basauriko hamaikak» deiturikoek 10 urteko prozesu judiziala jasan behar izan zuten. Estatu osoko emakumeek kaleak hartu zituzten, erabakitzeako

eskubidearen alde eta atxilotuei elkartasuna adierazteko. Mobilizazioak oso nabarmenak izan ziren, eta esan daiteke kasu horren ondorioz agenda publikoan jarri zirela abortua eta emakumeen sexu- eta ugalketa-eskubideak. Are gehiago, 1985ean, abortua partzialki zigortzen ez zuen legearen aitzindaritzat ere jotzen da. Feministen mobilizazioak hedatzen joan ziren, borroka-modu konprometitu, deigarri eta erradikalak asmatu zituzten. Bilboko Udala okupatu zuten; sortutako kontsignak horma guztietan agertu ziren, baita kioskoetako egunkarietan zigilatuta ere, zabaldu aurretik; abestiak asmatu zituzten epaitegien aurrean kantatzeko; milaka sinadura bildu zituzten hamaika akusatuentzako amnistia eskatuz; eta,



autoinkulpazio-kanpaina handi batean, 1.300 artista, politikari, kazetari eta abarrek honako hau adierazi zuten: «Nik ere abortatu dut». 1985ean, abortu klandestinoak ere egin ziren jendaurrean Bartzelonako jardunaldi feminista batzuetan, abortu askea eta doakoa aldarrikatzeko.

Ermuko Asanbladako emakumeek aktiboki parte hartu zuten protestetan; autobus bat paperez bete zuten, eta ez hori bakarrik: manifestazioak antolatzeaz gain, Basauriko emakumeen aldeko sinadura-bilketak eta bestelako ekitaldiak antolatu zituzten. Mariarrok dioenez, «abortuaren aldeko kanpaina garrantzitsuak egin genituen, eta Asanbladatik emakumeak Iparraldera lagundu genituen, abortatzera». «Paris eta Londreserako helbideak pasatzen genituen. Gogoan dut, abortatzeko eskubidea aldarrikatzeko, PSOEkoak Casa del Pueblon giltzapetu genituela», (FERNANDEZ, 2014). Ameliak eta Marianek, azken hau, Mariarroken laguna eta militante feminista, Basauriko hamaiken aldeko mani batean parte hartu zuten Eibarren: «Hamaika emakume gindoazen kateatuta, kondenatuak izan zirenak itxuratuz. Ideia Maria Rosariorena izan zen, batez ere», dio Ameliak. Marianek gogoratzen du «kateak kartoi beltzarekin» egin zituztela, «elkarri lotuta».





BEGONIA FERNÁNDEZ

MP ROSARIO ARRIZABALAGA



6. Hirigintza: emakumeek gidatutako borroka

Neurrigabeko hazkundera

Ermuko hazkunde demografiko eta urbanistikoa ezagutu ez duenarentzat, historia txundigarria da. 1960an, 3.000 biztanle inguru zituen, eta zazpi urtetan 11.857 izatera pasa ziren. 1967ko abenduko kopuru ofiziala da, baina Eibarren lan egiten zuten eta gaua Ermuan igarotzen zuten pertsona asko ez zeuden bertan errolatuta. Gainera, «Ermuan ez zegoen amategirik, ondorioz, ama asko Eibarren erditzen ziren, eta horrek haurrak sorterrian inskribatzea eragiten zuen, bertan bizi ez arren», (SAPSOOTHAM, 2018).

Kalkuluen arabera, 1967aren amaieran 16.000 pertsona inguru bizi ziren Ermuan. Ez da erraza imajinatzea zer-nolako eragina izan zezakeen horrek landa-eremuko herri euskaldun batean: urte gutxi batzuen buruan, bost aldiz biderkatu zen biztanleria, lotarako hiri bihurtu baitzen Ermua, biztanleria migratuaren ehuneko oso altuarekin.

Constanza Tobío soziologoaren ustez, «hiria proiektatzeak, hau da, haren itxura, espazio libreak, sinbolikoak, etxebizitzak... proiektatzeak orobat esan nahi du etorkizuneko biztanleak nolakoak diren eta nola biziko diren eta haien beharrak zeintzuk izango diren asmatzea». Ermuan ez zen halakorik gertatu, 1983a arte ez zen Hiri Antolamenduko Plan Orokorrik (HAPO) izan; beraz, bien bitartean, modu kaotikoan eta kontrolik gabe eraiki zen.

«Ermuaren hazkunde azkar eta kontrolik gabea 1950etik aurrera gertatu zen batez ere, ibaia lurperatu zenean; ahal ziren espazio guztiak aprobetxatu ziren, lautadan zein mendi-hegalean zeudenak, tailerrak, fabrikak, bizitegi-auzoak eta abar eraikitzeko», (OBALDIA, 2018). Hasieran, oraindik geratzen ziren eremu libre lau bakarretan eraikitzen zen, baina laster, José Manuel Azkonak oso modu grafikoan azaltzen duen bezala, «mendi-erasoa» hasi zen (AZKONA, 2003), % 40ko malda zuten hegaletan. Etxebizitzen ugartasun horrekin eta ugazaben lanarekin txabolismoaren mamua saihestea lortu bazen ere, ez zen bizi-kalitate onik eskaintzea lortu. Hazkunde demografiko eta industrial azkar horrek berekin ekarri zituen pilaketa, zerbitzu-falta eta lurzorua eta uren kutsadura.

Ugazabandreak

Hasiera batean, Ermura iritsi ziren milaka migratzaileak Espainiar Estatuko landa-eremuetako gizon gazteak ziren, batez ere Galiziatik, Gaztelatik eta Andaluziatik etorritakoak.

Ugazabek —emakumeak eta batez ere ezkonduak— beren etxean hartu zituzten langile iritsi berri horiek. Apopiloek etxebizitzaren, janariaren eta arropa-garbiketaren arazoa konpontzen zuten; ugazabandreek, berriz, beharrezko diru-sarrerak jasotzen zituzten etxearen biziraupenerako, «familiaburuaren» soldata, oro har, ez baitzen nahikoa.

Maria Rosarioren familiak ez zuen apopilorik hartu, seguruenik ordurako familia ugaria zelako eta amak, Jesusak, beste lan batzuk zituelako. Hala ere, ugazabandreen eta apopiloen errealitateak eragin handia izan zuen bizikidetzan, eta herrira iristen ari ziren milaka migratzaileekiko harremana erraztu zuen.

Familien Elkarteak

«Familien Elkarteak 1971n sortu zen, Ermuko Santiago Apostoluaren Parrokiari eta Emakumearen Sustapenerako Zentroari lotuta. Hasieran talde misto bat bazen ere, talde horretan emakumeen zeregina funtsezkoa izan zen, eta emakume-talde bihurtu zen ia. Urte haietan, haien borroka komunitateko premietara bideratzen zuten: argiteria, haur-eskolak eta haurtzaindegiak, osasun-zentroa, berdeguneak, semaforoak, sarbideak hobetzea, etab.», (BALTAR, 2009).



Esperanza Espín Familien Elkarteko presidentea izan zen 1974tik 1979ra; borroka gogorreko urteak izan ziren. Bego V.-k honela definitzen du: «Oso emakume berezia, geroago HBko lehen zinegotzia izan zen. Tradizio karlistatik zetorren emakume hiperkatolikoa zen, seme-alaba askoren ama; baina, aldi berean, herriarekin oso konprometitua eta auzo-mugimenduan asko borrokatu zuena». Maria Rosariok ere funtsezko papera jokatu zuen, «Mariarroken eskutik bihurtu zen Espe lehendakari, hau da, hark babestuta. Mariarro Familien Elkarteko beste eragile bat zen. Elkarte honetan aurpegi gehiago egon litezke, baina bera ahots oso garrantzitsua izan zen, dudarik gabe», gehitu du Bego V.-k.

EMKren barruan oso garrantzitsutzat jotzen zen Familien Elkartean parte hartzea, herrian borrokatu behar baitzen. Julio bat zetorren horrekin: «Nola konpondu zelulan auzo honetan duten arazoa. Ez dakigu zer gertatzen den, hor egon behar dugu. Auzokideek zer pentsatzen duten jakin behar da, 4.ekoak, 5.ekoak eta pareko etxekoak».

Maria Rosarioren hitzetan, «Ermuaren hiri-garapen kaotikoagatik eta funtsezko zerbitzuen (etxebizitza, osasuna, hezkuntza, etab.) egoera kezagarriagatik arduratuta zegoen herritar-talde batek sortu zuen Familien Elkartea. Lehenik eta behin, azterketa soziologiko bat eskatu zuten udalerrian», (Fernandez, 2014). Azterketa horrek egoera soziologiko eta urbanistiko harrigarria erakusten du: auzo batzuk oso urrun daude erdigunetik; etxekoandreak asfaltatu gabeko bideetatik joaten dira merkatura, udaletxera edo postara, trafikoa astuna eta desnibel handia duten errepideen ondotik; ez dago ez parkerik, ez lorategirik, ezta plazarik ere, airea hartzeko edo beste pertsona batzuekin hitz egiteko.

Bego V.-k aurrekoa berresten du: familien sostengu-lanetan aritzen ziren emakumeek pairatzen zuten, batez ere, herriko hondamendia. Bere ustez, oso garrantzitsua izan da hiriko emakumeen ikuspegia, eta emakumeak izan dira subjektu aktiboak: «Errepide ez-hilgarri bat lortzeko edo errepide bati lau erreki kentzeko borroka³⁶; eskolen alde, uraren, espaloia-aren, haur-eskolen eta osasunaren aldeko borroka. Hori guztia oso emakumeena zen eta da». Aldi berean gogora ekarri du: «Garai horretan, Emakumearen Sustapen Zentroa sortu zen, eta zentroko emakumeek bat egin zuten mobilizazioekin».

Emakumeen parte-hartzea garai hartako prentsan islatzen da. 1975eko apirilaren 23an hainbat hedabidek jakinarazi zuten ezen ehun ama inguruk, beren seme-alabekin batera, manifestazioa egin zutela San Lorentzo auzoan; izan ere, eskolarik gabe zeramatzaten bi aste, haurdun zegoen maistra ordezkatu gabe zegoelako. Hainbat izapide egin ondoren, manifestatzea erabaki zuten, eta «Guardia Zibilak desegin zuen mobilizazioa, galtzada okupatzeagatik eta trafikoa oztopatzeagatik».

36 Herria bitan banatzen zuen N-634 autobia-aren proiektuak, lau erreiko bidea zen.

Gorputz militar berak beste mobilizazio bat ere desegin zuen: 1976an, lau mila pertsona manifestatu ziren; autobidean eserialdi bat egin zuten, eskolak falta zirela aldarrikatzeko eta «urtero hainbat istripu hilgarri gertatzen ziren errepidearen arazoari konponbidea eman behar zitzaiola eskatzeko»³⁷.

Maria Rosariok emakumeen borroka ere azpimarratzen du: «Mobilizazio handien garaia izan zen, jende askok parte hartu zuen borroka horretan, eta era askotara: errepidetik igarotzen ziren ibilgailuak zenbatuz; atez ate, Bizkaia eta Gipuzkoa Etorbideetan bizi ziren biztanleen hauteskunde-errola eginez; kalean erakutsiz, plano eta diapositiben bitartez, zer-nolako irtenbidea planteatzen zuen Elkartek; milaka sinadura bilduz; Guria Zineman batzar jendetsuak eginez; nola ez, errepidea behin eta berriz moztuz; eta San Lorentzotik plazara, orduan Udala zegoen plazara, manifestazioak eginez. Emakumeok aktiboki hartu genuen parte lan, ekintza eta mobilizazio haietan. Antolakuntzan eta borrokan lehen lerroan geunden», (FERNANDEZ, 2014).

«Errepide orokorrean, Sallabentetik Kaltxangoraino, errei bikoitza egin nahi zuten, hesiekin eta metro eta erdiko espaloiarekin alde bakoitzean. Autobide bat prest zegoen, plano eta guzti; Franco hil aurretik izan zen. Jakin genuenean, astakeria iruditu zitzaigun eta urteak eman genituen mobilizatzen; azkenean, errepidea orain dagoen bezala egin zen. Elkarteko jendea zuzenean joan

**“Ermuaren hiri-garapen
kaotikoagatik eta funtsezko
zerbitzuen (etxebizitza,
osasuna, hezkuntza, etab.)
egoera kezkagarriagatik
arduratuta zegoen herritar-
talde batek sortu zuen
Familien Elkartea. Lehenik
eta behin, azterketa
soziologiko bat eskatu
zuten udalerrian”**

37 Mediterráneo egunkaria, 1976ko abenduak 20.

zen Herri Lanetako ministroarekin negoziatzera: Espe presidentea joan zen, Miguel Angel nire senarra, eta harrapatuta hil zuten pertsona baten semea. Bizkaia osoko punturik beltzena zen Ermua, jendea hiltzen ari zen errepidean, argirik ere ez zegoen», Maria Rosariok borroka hori oroitzen du, «nire bizitza osoan izan dudan garaipen bakarrenetakoa izan zela uste dut»³⁸.

Familien Elkartek batzordeak zituen auzoetan, eta berebiziko garrantzia izan zuen Ermua bizigarriago bat eta oinarritzko zerbitzuak lortzearen aldeko aldarrikapenetan. Horretaz gain, parte-hartzaileek beren burua prestatu zuten hirigintza-plangintzaren ondorioak ezagutzeko eta ulertzeko. Horretarako, Bizkaiko familien elkarteei aholkuak ematen zizkien talde baten laguntza izan zuten.

Elkartean, eraikuntzatik ateratzen den diruak herriaren hobekuntzarako balio behar duela ikasi zuten.

Talde horrekin berarekin, Hiri Antolamenduko Plan Orokor bat egiten hasi ziren, eta horixe proposatu zioten alkateari, lehen udaletxe demokratikoa iritsi zenean.

Emakumeentzako gune propioa

Genero-ikuspegia duen hirigintzak pertsona guztien eguneroko beharrak kontuan hartzen dituen hirigintza inklusiboa bultzatzen du; horretarako, emakumeen eta gizonen ahotsak entzun behar dira, espazioen erabilera bereizia egiten baitute. Garai hartan, hirigintzaz eta generoaz ez zen hitz egiten. Baina Ermuaren kasuan, nabarmena da emakumeen protagonismoa hiri-plangintzarekin lotutako aldarrikapenetan, pertsonen eguneroko beharrak hobetzearekin zerikusia dutenetan, hala nola anbulatorioan, eskoletan, espaloietan edo saneamenduan.

38 Audio-elkarrizketa, *Drogeteniturrri* (2020).

Momentu berean, Emakumearen Etxea sortzeko beharra ikusi zen; emakumeentzako gune propio bat, berdintasuna sustatzeko gune bat. Aurretik jada, 1987ko Emakumeen Hautagaitzaren udal-programaren proposamenetako bat izan zen. Eta 1994an ere, Leioako III. Jardunaldi Feministetan ideia bera azaltzen zen: Ermuko Emakumeen Asanbladak Emakumeen Etxearen beharra azpimarratzen zuen, ekipamendu estrategiko bezala.

Talde feministen aldarrikapen hori, 1994ko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO) onartu aurreko eztabaidetan ere agertu zen. Maria Rosario pertsona erabakigarria izan zen Emakumeen Etxea premia gisa planteatzen. Plana berrikusteari begira, udalak inkesta bat egin zuen: herritarren hainbat sektoreri zuzenduta zegoen eta herriaren gabeziei buruzkoa zen. Egoera hori aprobetxatuz, Mariarrok emakume askorekin hitz egin zuen etxe propioa izatearen garrantziaz. Haren argudioek diagnostikoaren emaitzetan eragina izan zuten dudarik gabe, Emakumeen Etxea lehentasunezko beharrian gisa atera baitzen.

Mariarrok espazio propio baten egokitasunari buruzko eztabaidak ekarri zituen gogora: «Espazio bereizi bat eratzea komenigarria zen edo ez eztabaidatu genuen, gure borondatea emakumeen eta gizonen gizartea aldatzea zenean. Beldur ginen Etxea gune eroso izango ote zen, baina, azken finean, isolatuta eta giltzapetuta geldituko ginen. Hala ere, espazio propio bat behar genuela erabaki genuen; elkar ezagutzeko eta aitortzeko, informatzeko eta ikasteko, aliantzak egiteko eta estrategiak ehuntzeko, ahalduztzeko... Mundua aldatzeko aukera emango zigun leku bat behar genuen», (FERNANDEZ, 2014).





Emakumeen Etxearen aldarrikapenak bi esperientzia zituen abiapuntu: Emakumearen Ikasgela, prestakuntza- eta partaidetza-gune instituzionala; eta Emakumeen Topalekua, Ermuko Emakumeen Asanbladak sustatutako gunea, Zubiaurre kaleko lokal batean zegoena. Azken hori emakumeentzako topagune informal bat izan zen. Bertan ikastaroak, hitzaldiak, esperientzia trukaketak, literatur lehiaketak eta beste jarduerak batzuk egin ziren. Bertan antolatutako jarduerak etxe propio baten beharra erakutsi zuten: eduki feminista zuten jarduerak antolatzeko eta emakumeen topaketa eta parte-hartzea bultzatzeko leku bat izateko.



2003ko martxoan, Ermuko Emakumeen Topalekua inauguratu zen Izelaieta kaleko 12. zenbakian, Maria Rosario jaio eta hazi zen etxearen ondo-ondoan. Anekdotikoa da nabarmentzea eraikin hori bera Guardia Zibilaren kuartela ere izan zela.

Izaera instituzionaleko lehen Emakumeen Etxea izan zen EAEn.

6. Hirigintza: emakumeek gidatutako borroka





7.

Borroka feminista Ermuan: mugarri batzuk

Mariarroken borroka feminista eta hark sortutako eskola oso lotuta daude bere izaerarekin eta munduan egoteko zuen moduarekin: militantzia ulertzeko zuen moduarekin, borroka-estrategiekin, ideiak defendatzeko zuen pasioarekin, bere energia aseeginarekin, teoria feministaren inguruan zituen ezagutzekin eta teoria horiek praktikara ekartzeko zuen gaitasunekin.

Klandestinitateak eta EMKn militatzeak eragin handia izan zuen berarengan, eta eragin hori argi nabaritzen da feminismoaren borroka-estrategiak ulertzeko zuen moduan. Hor izan zituen lehen erreferente feministak, eta orduan hasi zen kontzientzia hartzen. Gainera, irakurketarako, hausnarketarako eta eztabaidarako espazioak sortzearen garrantziaz jabetu zen; pentsamendu kritiko feminista eta gorputz teoriko sendoa eraikitzearen garrantzia, eztabaida politikoan aurkari zaila izateko. Berak kontatu zuen bezala: «Guk, alderdian, irakurri, eztabaidatu, eta astero bilerak egiten genituen, marxista klasikoak irakurtzen genituen (...). Azterketarako, eztabaidarako eta ekintzarako oinarria eraikitzen genuen etengabe», eta diziiplina hori Ermuko Emakumeen Asanbladara eraman zuen. «Batzarrean askotan esaten zuen “honi buruz hitz egin behar dugu”. Adibidez prostituzioaren gaia ateratzen zen; gai potente horri buruz bagenekizkien gauza batzuk, irakurtzen genuelako... Baina berak elkarrekin eztabaidatzea nahi zuen “honi buruz hitz egiteko elkartu behar dugu”, eta “beste hartaz hitz egiteko”. Aurretik, gaiaren inguruan irakurri, dokumentatu eta hausnartu zuelako izango zen eta esateko zerbait zuela uste izango zuelako. Baina, batez ere, gure artean ideiak kontrastatzeko egiten zuen, batzar berekoak izan arren ideia desberdinak izan genitzakeelako (...). Asko gustatzen zitzaion eztabaidatzea, “gauzak egitea eta horretarako elkartzea... ongi!”, baina Mariarrok espazio gehiago behar genituela uste zuen hitz egiteko, eztabaidatzeko, pentsamendu feminista bultzatzeko», azpimarratu du Bego F.-k.

“Mariarroken borroka oso lotuta dago bere izaerarekin eta munduan egoteko zuen moduarekin: militantzia ulertzeko zuen moduarekin, borroka-estrategiekin, ideiak defendatzeko zuen pasioarekin, bere energia aseeginarekin, teoria feministaren inguruan zituen ezagutzeekin eta teoria horiek praktikara ekartzeko zuen gaitasunekin”

Ideiak ezeztatu eta defendatzeko oinarri teoriko sendoa behar da; Mariarrok bazuen oinarri hori eta ondo transmititzen zuen gainera. Bego V.-k dio Mariarrokekin ikasi zuela «gorputz teorikoa»: «Nik emakume- edo berdintasun-idazkaritzetan ikasten nuen arren, Asanbladak asko eman zidan, Mariarrok asko irakatsi zidan teoria feministaren gainean».

Familien Elkarteko parte-hartzeak Mariarroken militantzia feminista ere markatu zuen. Elkarte horretan, emakume feministen eta ez-feministen borroka-esperientziak zeuden. Eta esan bezala, Ermua bizitzeko leku duin bat izan zedin egindako lehen borroka kolektiboetan, emakumeak izan ziren protagonista nagusiak.

Herritarren borrokarako dinamika ezberdinak eta udal-erabakiguneetan tokia izateko aldarrikapenak Ermuko mugimendu feministaren borroka askotara eramane ziren. Mariarro, noski, eragile garrantzitsua izan zen.



Kontrazepzio eta Informazio Sexualaren Udal Zentroa, Planning-a

Garai hartan, jaiotza-tasa oso altua zen eta herriko mugimendu feministak abortuari eta sexualitateari buruzko informazioa ematen zuen, borondatez, eta, batzuetan, ezkutuan. Errealitate horren aurrean, herritarrek informazio- eta aholkularitza-gabezia ohartu ziren, eta sexu-informazioaren eta kontrazepzioaren arloan erantzuna emango zuen zerbitzu publiko bat sortzeko premia ikusi zuten.

Horrela sortu zen Kontrazepzio eta Informazio Sexualaren Udal Zentroa, 1981ean. Zerbitzu hori Ermuko Emakumeen Asanbladaren eskaeretako bat izan zen, eta gizartearen presio ikaragarriari esker lortu zen.

Mariarro, Emakumeen Asanbladako gainerako emakumeekin batera, *planningaren* eta bere ikuspegi feministaren sustatzaileetako bat izan zen. Bere esanetan: «*Planningaren* lehentasuna sexuari buruzko informazioa zen, eta, bigarren maila batean, familia-plangintza zegoen. Sexu-askatasuna lortzeko, sexuari buruzko informazioa beharrezkoa zen. *Planningarekin*, sexualitateari buruzko informazioa eman nahi genien emakumeei, haien sexualitatea ezkutuan



**“Osasun publikoak
plangintza bereganatu
ondoren, 1993an,
Emakume Gazteen
Taldeak, Emakumeen
Asanbladarekin
lankidetzan, Gazteentzako
Sexu Informazioaren
Bulegoa jarri zuen abian”**

baitzegoen gizartean; ez genuen ez prestakuntzarik ez informaziorik; sexualitatea gure senargaien bidez bizi genuen; emakumeen sexualitatea ezin zela beste era batekoa izan sinestarazten ziguten... Horregatik, zapaltzen gintuen eredu sexuala aldatzeko eta gu partaide bihurtzeko premia larria ikusten genuen (...). Guk, *planningean*, sexualitateari buruzko informazioa ikuspegi feministatik emango zuen jendea nahi genuen», (FERNANDEZ, 2014).

Zentro hori –lau urtez gutxi gorabehera, eta mugimendu feministaren ikuskapenarekin– herritarrentzat irekita egon zen, Osakidetzak 1984 eta 1985 bitartean

bereganatu zuen arte. Mobilizazioak egin ziren itxiera eragozteko. Zerbitzu berriak ikuspegi feminista galduko ote zuen eta patologiarantz bideratutako arreta eskainiko ote zuen beldur ziren. «*Planningak* bere hasierako filosofiarekin jarraitzea nahi genuen, erabiltzaileek eta mugimendu feministak zeresana izatea. Hori horrela planteatu zen, baina ez zen lortu», (FERNANDEZ, 2014).

Herritarrek presioa egin bazuten ere, zentroa itxi egin zen azkenean, Mariarrok hala gogoratzen zuen: «Ahal genuen guztia egin genuen *planninga* itxi ez zezaten. Anbulatorioaren aurrean biltzen ginen, pankartekin: “*Planningaren* itxieraren aurka” (...). Erakartzeko indar handia genuen, jende gazte asko etorri zen eta mutilak ere etorri ziren plangintza aldarrikatzera. Une hartan, oso borroka garrantzitsua izan zen, eta, zoritxarrez, galdu egin genuen», (FERNANDEZ, 2014). Osasun publikoak plangintza bereganatu ondoren, 1993an, Emakume Gazteen Taldeak, Emakumeen Asanbladarekin lankidetzan, Gazteentzako Sexu Informazioaren Bulegoa jarri zuen abian.

Izan ere, Maria Rosariorentzat, Ermuko Kontrazepzio eta Informazio Sexualaren Udal Zentroa presazkoa bazen ere, sexu-askatasuna eta gure gorputzen gozamenerako eskubidea aldarrikatzea beharrezkoa ikusten zuen, ahalduntze feminista lortzeko estrategia gisa. Zaidak, Emakumeen Asanbladako lagun eta militanteak, kontatu du Mariarrok gai horri garrantzia handia ematen



ziola: «Asanbladako gazteenei helarazi zigun oso kezkatuta zegoela gure plazer sexualagatik, eta horrek grazia egiten zidan. Eta asko eskertzen dut, aldarrikatzeko modu bat zelako, eta baita guganako maitasun modu bat ere (...). Kezka hori transmititu nahi zigun: plazer sexualerako



dugun eskubidea eta gure gorputzez eta sexualitateez askatasunean goatzeko eskubidea».

Emakumeen benetako askatasuna, plazeraren eta orgasmoen aldarrikapenaren, gure gorputzen autonomiaren, erru eta lotsarik gabe gure desioak ezagutzearen... eskutik dator. Horrela defendatzen zuen Maria Rosariok. Eta oroitzapen dibertigarri bat utzi zigun horren adierazle: «Ermuko Emakumearen Etxean egindako bideo batean orgasmo bat irudikatu zuen dildo more batekin»³⁹.

Emakumearen Arretarako Bulegoa eta Babes Etxea

Ahalegin handiak egin ondoren irabazi zen beste borroka bat izan zen Emakumearen Arretarako Bulegoa eta Babes Etxea zabaltzea –tratu txarren biktimei zuzendua–.

Planningarekin bezala, Emakumeen Asanbladak uste zuen administrazio publikoak berak bermatu behar zuela zerbitzu hori. Tratu txarren biktimei zuzendutako emakumeen beharrei erantzuteko gai izango zen zerbitzua. Tarte bat zeramaten emakumeekin zuzenean lan egiten, eta, Mariarrok azaldu bezala, «epaiketetara laguntzen genituen, baita etxera ere, behin baino gehiagotan egin genien aurre tratu txarrak ematen zituztenei ...», (FERNANDEZ, 2014).

39 *Video del minuto* proiektuko bideo grabaketa, "Los Excesos"-en inguruan egina, 2006.

Erakunde publikoak beren erantzukizunak hartzera behartu nahi zituzten, beste behin ere, Emakumeen Asanbladaren, Emakumeen Sustapenerako Zentroaren edo Caritasen esku bakarrik gera ez zitezen. Maria Rosariok esan bezala: «Oso lan gogorra izan zen, denbora asko eman genuen eskatzen, eta asko landu genuen. Txosten bat egin genuen, Caritasek eta Asanbladak tratu txarreatatik zenbat emakume artatu zituzten jasotzen zuena, eta udalari aurkeztu genion, bulegoa eta babes-etxea eskatzeko. Ez zuten imajinatzen kasu errealek eta datu estatistikoak aurkeztuko genituenik (...). Eskaera horiek guztiak, bai bulegoarenak, bai babes-etxebizitzarenak, Zentroko emakumeekin batera egin ziren» (FERNANDEZ, 2014).

Mariarrok borroka horri buruz ematen duen testigantzan argi azaltzen da nola ulertzen zuen militantzia. Besteak beste, eskaerak zehaztasunez planteatzea, datu, helburu eta proposamenekin. Estatu-mailan eraildako emakumeen kasuak zenbatzen ez zirenean, Ermuan jada hainbat taldek artatutako kasuak erakusten zitzaizkien erakundeei. Azken batean, tratu txarren biktima ziren emakumeak eta indarkeria-kasuak ez ziren pertzepzio subjektiboa, errealitate objektiboa baizik.

1987an, Ermuko Emakumeen Hautagaitzaren hauteskunde-programaren puntu garrantzitsu bat izan zen emakumeei arreta emateko bulego bat eta babesleku bat aldarrikatzea. Izan ere, hori izan zen feministak hauteskundeetara aurkeztera bultzatu zuten arrazoietakoa bat:

«Agintariek futbol-zelaian 128 milioi euro gastatzen dituzten bitartean, Ermuko emakumeok irizpide feministen arabera kudeatutako informazio-zentrorik eta babes-etxerik gabe jarraitzen dugu. Eta guk ez dugu hori onartuko, asko baitira, gure herrian, tratu txarrak jasaten dituzten emakumeak...»⁴⁰

Baina Babes Etxearen aldeko borroka ez zen datu batzuk aurkeztera mugatu. Mugimenduaren presioak eta aldarrikapenak anitzak ziren, eta umorea, sormena eta, nola ez, kantuak ezin ziren falta: «Udaletxean giltzapetu nahi genuen, baina ez ziguten sartzen utzi. Orduan,

40 Ermuko Emakumeen Hautagaitzak aurkeztutako eskuorriko testu bat.

zinegotzietako bat inguratu genuen “Non daude giltzak...” kantatzen genion bitartean», (FERNANDEZ, 2014). Maria Rosario horrelako ekimenen bultzatzailea izan ohi zen, Ameliak dioen bezala: «Hemen, tratu txarren gaiarekin ere oso aitzindariak izan ginen. Emaztea jo zuen tipo bat kotxe baten kontra zokoratu genuen; neska bat babestu genuen aitari haurra uzten zion bitartean, erasorik egon ez zedin. Nik uste dut aitzindariak izan ginela gauza askotan».

1988an, Ermuko emakume-taldeek presio horri guztiari esker, abian jarri ziren Emakumearen Arreta Bulegoa eta Tratu Txarrak Jasan dituzten Emakumeentzako Babes Etxea.

Emakumearen Udal Kontseilua

Emakumeen –feministak zein ez– indarrak bateratzeko eta saretzeko modu hori Emakumearen Udal Kontseiluan ere gauzatu zen. 1991n sortu zen eta Euskal Herrian aitzindaria izan zen. Erakunde horrek herrian emakumeen asoziazionismoa bultzatzea ahalbidetu zuen (FERNANDEZ, 2014), eta parte-hartze organo bat izan zen. Antolatutako emakumeen mugimenduaren eta Udalaren arteko elkarriketarako espazioa bilakatu zen.

Horrela, emakumeen kolektibo guztiak biltzea eta eztabaidak bultzatzea eta aberastea lortu zen, diskurtso feminista guztiengana iritsi zedin. Manolik dioenez –Emakumearen Sustapenerako Zentroko ikaslea eta Berdintasun Kontseiluko borroka-kidea–, «berak [Mariarro] proposatu eta errazten zuen eztabaida. Gaitasun hori zuen, besteok jarraitu egiten genion».

Eta eztabaidaren eta hausnarketaren ondoren, ekintza zetorren: «Mariarrok proposatzen zuenari, une hartan egiten ari zenari, herrian borrokatu behar zenari... lotzen zitzaizkion emakumeak. Gauza bat pentsatu edo zerbaitetan inplikatzeko zenean, emakumeak erakartzen zituen bere izaerarekin. Eta bera ez bazegoen, bazirudien Kontseilua ez zegoela osorik», gehitu du Manolik.





ON À L'OCCUPATION MA
SPECT DU DROIT INTERNATIONAL : RÉFÉR



8. Borroka internazionalista eta solidarioa

Sahara bihotzean

«“Sahara bihotzean” leloa 1998an sortu zen, Saharako erreferenduma egin behar zen urtean. Lankidetzeta eta Elkartasun Kontseiluan hitz egiten dugunean, bakoitzak herrialde bat du bihotzean, nire kasuan argi dago»⁴¹, zioen Mariarrok emozioz gainezka. Benetan ukitzen zuela gogoratzen du Juliok: Sahararekin, «zerbait sentimentala zuen, oso indartsua».

Sahara bere bihotzeko kutuna zen, eta Maria Rosariok bete-betean ekin zion herri saharauiarekiko⁴² elkartasunari: haurren beharrak eta emakumeen borrokak babesten zituen batez ere.

41 Mariarroken testigantza horiek *Drogetenitturrirentzat* (2020) egindako audio-elkarrizketa batetik hartu dira.

42 Dokumentu osoan zehar Mendebaldeko Sahara herrialdeko herritarrei izendatzeko saharauiak erabiltzea erabaki da. Hau da, sahararrak beharrean, saharauiak erabiliko da; ñabardura politikoa dela eta, Mariarrok izendapen hori babesten baitzuen.

«Hasieran, Saharari emandako babesa erabat politikoa izan zen; herri saharaiak bere independentziaren alde borrokatzen zuen». «Fronte Polisarioaren aldeko sinadurak biltzen genituen. Gerran zeuden eta ezin zen laguntza humanitario edo solidariorik egin. Bake-plana sinatu zenetik, 1991tik alegia, beste lan mota bat egitea posible izan zen», adierazi zuen Maria Rosariok.



1995ean iritsi zen lehen aldiz saharaien kanpamentuetara: «Eszedentzia bat hartu nuen, hura ezagutu nahi nuen, eta astebeterako joan nintzen. Markatu ez ninduen arren, errealitatea ikusteko aukera izan nuen». 1997an, beste eszedentzia batekin, hilabete baterako itzuli zen: «Orduan haur baten harrera-familia izan ginen, eta hurrengo urtean *Oporrak Bakean* proiektuarekin hasi ginen»⁴³. Handik gutxira, Miguel Angelek eta Maria Rosariok haurraren anaia bat ere hartu zuten etxean.

«Oraindik ez geneukan elkarterik, baina Ermuan jende multzo bat geunden».

Urteak zeramatzaten estatu-mailako *Elikagaien Karabana* proiektuan laguntzen. Oliotan egindako atuna biltzen zuten; hori zen, hain zuzen, Euskal Autonomia Erkidegoak karabanarako bildu behar zuena. Gero, bila hasi ziren, *Oporrak Bakean* proiektuan parte hartuko zuten familiak aurkitu nahian. 2012an, ofizialki Hagunia Herri saharaiaren Lagunen Elkarte gisa eratzea erabaki zuten.

43 Proiektu horrek aukera ematen die haur saharaiari harrera-familiatan eta kanpamentuetatik kanpo egoteko udako hilabete gogorretan. Beste helburuetako bat da Espainiako Estatuan kausa saharaiari buruzko kontzientzia zabaltzea, politikoa eta ez bakarrik humanitarioa. Estatuan, *Oporrak Bakean* proiektua 1979an hasi zen.

Gaixo dauden haurren harrera

Aniztasun funtzionala zuten haurrak hartzea zaila izan zenez, Fronte Polisarioak beste aukera pentsatu zuen haur horiek bolada bat pasa zezaten kanpamentuetatik kanpo. «2000.urtean, Fronte Polisarioaren ordezkaritzak proposatu zigun premia bereziak zituen haur talde bat ekartzea, kanpamentuetatik irten gabe geratzen baitziren, ezin zutelako familietara joan. Fronteak ahaleginak egin nahi zituen beste haur haiek ere atera zitezen». Oporretako harrera gisa hasi zena proiektu handi bihurtu zen. Premia bereziak zituzten adingabeak elkarrekin bizi ziren Ermuko etxebizitza batean, eta profesionalen laguntza jasotzen zuten bertan; adituengana edo ospitaleetara ere eramaten zituzten arreta jasotzeko. Hilabete batzuetan osatu ondoren, kanpamentuetara itzultzen ziren.

Garai hartako lankidetza-zinegotziak, Felix Prolek, babesa eman zion proiektuari. Estatu osoan bakarra izan zen, eta ia hogeitaz urte iraun zuen.

Mariarro izan zen proiektu horren bihotza eta arima. Antonia eta Djeditou arduratu ziren eguneroko lanaz pisuan. Udalak Antonia kontratatu zuen hiru hilabetez garbiketa-lanak «eta behar zen guztia egiteko». Baina kontratua amaitu zenean, geratu egin zen, borondatez lan egiteari ekin zion. Iritsi zen lehen umeetako bat adoptatu zuen, haurraren amak hala eskatuta. Izan ere, «haurrarekin etorritakoak sendatu eta bueltatu egin ziren, eta bera hemen geratu zen errehabilitazioan; orduan, nirekin etorri nahi zuen etxera, lotara. Etxera eramaten hasi nintzen».

Djeditou erizain saharauia da, eta kanpamentuetatik iritsi zen, laguntzaile: «Haurrak beti bidali behar dituzu norbaitekin». Berak egin zituen kanpamentuetarako bidaiak haur berriak iristen ziren bakoitzean. Itzultzaile-lanak ere egiten zituen, nahiz eta hasieran berak gaztelaniarik ez jakin. Mariarrok, Antoniak eta Djeditouk laguntasun handia sortu zuten, nahiz eta, Djeditouk dioen bezala, «niretzat nire amak izan diren».

Horiez gain, beste hiru pertsonak ere esku hartu zuten etxebizitzaren proiektuan, eta, beharrezkoa zenean, goizaldean Barajaseko aireportura joaten ziren haurren bat hartzera. «Nik urte batzuk

eman nituen Miguel Angelekin aireportura joaten, deitzen zietenean. “Aizu, ez dakit zein kanpamentutako ume bat dator Madrileran”. Autoa hartu, bila joan, pisura ekarri, medikutara eraman, eta gero adituengana bideratzen zuten», dio Juliok. Mariarrok, batez ere azkenean, ezin zuen denetara iritsi, eta Marian bezalako lagunak laguntzen zituen: «Batuetan, goizeko 5etan, Madrileran haur baten bila joan behar zela esaten zigun».

Pandemiarekin, proiektua gelditu egin zen, ia dena bezala. 2019an, Udalak bideokonferentzia batera deitu zuen Maria Rosario, eta bertan iragarri zioten proiektua geldiaraziko zela. Hala eta guztiz ere, «udalaren konpromisoa dugu: ahal denean, berriro martxan jarriko da», ziurtatu zuen Mariarrok. Esanak esan, udalaren konpromiso hori ez zen bete, nahiz eta beharrezko proiektua izan: ebakuntzak edo osasun-arreta behar zituzten 100 haur baino gehiago igaro ziren proiektu horretatik.

Udalaren jarrera horrek beste ondorio batzuk izan zituen. Djeditou gaixo zegoen, ebakuntza baten zain, eta etxetik irten behar izan zuen. Egun batetik bestera, lanik eta etxebizitzarik gabe geratu zen. «Begirunerik gabe bota zuten, 20 urteren ondoren, e?», salatu du Antoniak. Djeditouk ez zuen beti udalaren kontraturik izan, «Maria Rosario eta beste lagun batzuen artean ordaintzen zioten Gizarte Segurantzak».

2022ko uztaillean, Ermuko Udalak onartu zuen Rio de Oro elkarteari lagatzea etxebizitza, adingabe saharauiei harrera egiteko. Baina, 2022ko abenduan proiektua oraindik ez zen martxan jarri.

Maria Rosario gaixorik egonda ere, «ahal zuen guztia egiten saiatu zen, bere lanari segida emateko», esan du Idoiak –Ermua Harrera elkarteak kidea eta bultzatzailea–, eta uste du Mariarrok Rio de Oren aldeko apustua egin zuela, harrera-etxea kudea zezaten.

Emakume Saharauen Batasun Nazionala babesteko Euskal Sarea

Mariarrok funtsezko zeregina izan zuen Tindufeko kanpamentuetan Emakumeen Etxeak martxan jartzen. Proiektu hori Euskal Sareak sustatu zuen, Emakume Saharauen Batasun Nazionalari (ESBN) laguntzeko. Sare horretako kide da Hagunia, Saharako lagunen Ermuko elkarte. 2005az geroztik, etxeak eraiki zituzten bost *wilayet*etan, eta Ahalduntze Eskola bat jarri da martxan, bertako emakumeentzat.



Maria Rosarioren parte-hartzeak garrantzia handia izan du: batetik, bere gaitasun estrategikoagatik eta Saharako lurren eta borrokaren ezagutzagatik; eta, bestetik, bere prestasun eta inplikazio pertsonalagatik. Kanpamentuetan hainbat astetako egonaldiak egin zituen, proiektuan lagundu ahal izateko. «Niretzat oso atsegina den bide horretatik lan egiten ari gara, eta Mendebaldeko Saharako Lurralde Okupatuekin ere lanean hastea lortu dugu».

2013an, Rosak eta Mariarrok lehen bidaia egin zuten Aaiunera, Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetera. *Emakume Saharauei Laguntzeko Nazioarteko III. Konferentzia: emakumeen erresistentzia Sahara Mendebaldeko lurralde okupatuetera* topaketetan parte hartu zuten. Marokok kolonizatutako lurraldeetan egindako emakumeen nazioarteko lehen topaketak izan ziren, aurrekoak Tindufeko kanpamentuetan egin baitziren. Rosak aireportuan jaitsi bezain laster poliziarekin izandako arazoak kontatzen ditu: «Gure atzetik ibili ziren denbora guztian». Haimak debekatu zizkieten, herri saharauiaaren tradizio nomadaren sinboloa. Beraz, kalean bertan egin beharrean, zabaltza batean kokatutako haima batean egin zen kongresua. Topaketa hastear zegoela, polizia iritsi zen eraikinean zeuden atzeritar guztiak ateratzeko eskatuz. «Mariarrok berehala erreakzionatu zuen», gogoratzen du Rosak. «“Baina hauek zer uste dute? Zuek ez jaitsi, banoa ni”. Geroago, beste batzuk jaitsi ginen eta han aurkitu genuen Mariarro, burua estalita; poliziaren aurrean protesta egiteagatik grabatzen ari zitzaizkion».

Emakume Saharauen Batasun Nazionala Babesteko Euskal Sarearen izenean joan ziren Rosa eta Maria Rosario Aaiunera. Hori izan zen Lurralde Okupatueterako emakumeei babesa eta elkartasuna emateko proiektu baten hasiera. Proiektu hori martxan dago oraindik, nahiz eta Marokoko agintariek saharauiak isolatzen jarraitu. Oztopoak oztopo, Mariarrok beste behin pasatzea lortu zuen. «Zaila da, nik bi bider egoteko zortea izan dut, ez baitizute sartzen uzten, haraino joaten zara eta ez dizute sartzen uzten. Eta kito».

Maria Rosariok argi zeukan, «hau da nire militantziarik maiteena», bere bi pasioak batzen dituelako: feminismoa eta kausa saharauia.

Haren heriotzaren ondoren, Elghalia Djimi-k –ekintzaile saharauia eta Giza Eskubideen Urraketen Biktimen Saharako Elkarteko presidenteordea–, bere izenean eta Marokok okupatutako lurraldeetako emakumeen izenean, Mariarro gogoratu zuen: «Bere lanari, bere indarrari aitortza egin nahi diogu, ezin izango dugu inoiz ahaztu. Maria Rosario oso positiboa zen eta momentu oso onak pasatu genituen elkarrekin».

Ermuko Nazioarteko Elkartasun eta Lankidetza Kontseilua (ENELK)

Garrantzitsua da jakitea zer izan zen Ermuko Nazioarteko Elkartasun eta Lankidetza Kontseilua eta zer izan zen Mariarrorentzat aktibismo modu hori. Izan ere, udal-organo horretan, Maria Rosarioren borroka-estrategietako printzipioak bultzatu ziren: herritarren parte-hartzea, kolektibitatearen indarra, esperientzien eta jakintzen trukea, justizia soziala, aberastasunaren banaketa eta feminismoa.

ENELK sortu zenean, herri-mugimendu indartsu batek BPGren eta erakundeen aurrekontuen % 0,7 lankidetza-politiketara bideratzea aldarrikatzen zuen. Kontseilua administrazio-organo bihurtu zen, eta, udalarekin batera, laguntzen banaketa eta elkarlana erraztu zituen; Ermuko herritarrak, 20 urtez (2000-2020), kontzientziatu eta sentsibilizatzeko.

Parte hartzeko eredu horri esker, herritarrek erabakiak hartzeko guneeetan esku hartzen zuten, beren proposamenak eta eskaerak agenda politikoaren parte izan zitezen; lorpen handia izan zen ENELKentzat. Kontseilua sortu zenean, Mariarrok ibilbide luzea egina zuen Herri Saharauia-aren Lagunen Kolektiboko kide gisa. Nazioarteko lankidetza eta elkartasunean, herritarren interesak batzen zituen eta udalaren erabakietan modu aktiboan esku hartzen zuen kontseilu bat sortzea bat zetorren Mariarrok militantzia ulertzeko zuen moduarekin.

ENELKen arrakasta, nahi izatera, bere ibilbide osoan izandako jardueren oparotasunaren bidez neur liteke. Hala esan zuen Mariarrok ENELKen historiari buruzko dokumentalean: «Ermua, 20 urte bidea egiten»⁴⁴. «Ekimen asko izan ziren. Ezin dira guztiak kontatu, noski, egin ditugun ekintza guztietan aldarrikapen bat egon delako; gaiei buruz hitz egiteaz eta informazioa emateaz gain, aldarrikapenak ere egon direlako. Ez dakit zenbat, 20 urte eta bi kanpaina urtero? Bada, berrogei aldarrikapen». Baina, datu kuantitatiboaz harago, kontseiluko kide izan ziren elkarteak eta pertsonen inplikazioa izan zen benetako garaipena. Juantxoren hitzetan, «gauzak elkarrekin egiteko gogoia zuen jende asko elkartu zen, eta giro ona sortu zen. Mariarro funtsezko pieza zen, noski».

Ermuko errealitate berrietara egokitzeko gaitasuna izan zuen ENELKek. Hasiera batean, ildo nagusia lankidetzak bazen ere, pixkanaka garrantzia hartu zuten migratuen eskubideen inguruko lanak, diskurtso xenofoboaren salaketak eta Ermuko bizikidetzak.

Esperientzia oso positiboa izan den arren, 2020an Ermuko Udaleko Lankidetzak Sailak amaiera eman zion herritarren parte-hartze aktiboari, eta, hala, kontseilua norabide bakarreko erabakiak hartzeko udal erakunde bihurtu zen. Erabaki horrekin batera, migrazioarekin lotutako gaiei betoa jartzea erabaki zuen sailak, eta, horrela, ordura arte egindako lan guztia amaitu zen. Azkenik, dirulaguntzak emateko oinarriak aldatu ziren, urte horietan guztietan elkarrekin antolatzen ziren jarduerari jarraipena emateko beharrezko finantzaketarik gabe utziz.

ENELKeko kide zirenentzat eta, nola ez, baita Maria Rosariorentzat ere, kolpe handia izan zen. Juantxok dioen bezala, «min ematen zion, Mariarro herrigintzan aritu delako beti, herria eraiki du. Borroka guztietan inplikatu da, eta harentzat funtsezkoa izan da gizarte-mugimenduen parte-hartzea udal-erakundean. Horretarako eskubidea genuela pentsatzeaz gain, borrokentzat ona zela uste zuelako jarduten zen hala». Mariarrorentzat ez zen erraza izan berarentzat oinarritzkoak ziren balio asko batzen zituen proiektua erortzen ikustea.

44 “Ermua, 20 años haciendo camino - 20 urte elkartasunean lanean” dokumentala. Ermuko Nazioarteko Elkartasun eta Lankidetzak Kontseiluaren historia. Online ikusi daiteke.



Azkenik, udalaren mespretxu horren ondorioz, urtetan borondatez parte hartzen zuten pertsonek amaiera eman zioten talde-lanari.

Ermua Harrera

Ermua Harrera ENELKeko elkarteen kezkatik sortu zen: beren herrialdeak utzi eta Europako kostaldera iristen ari ziren pertsonek ihesaldi masiboa ikaragarria zen, eta, bien bitartean, Europar Batasunak eta gobernuek ezikusia egiten zieten. Gerratik ihes egiteagatik, arrazoi

ekonomikoengatik, genero-jazarpenagatik edo beste arrazoi batzuengatik, berdin zuen, zerbait egin behar zen.

Behin betiko bultzada 2018ko udan etorri zen, Espainiako estatura Sahararen hegoaldeko eta Magrebeko milaka pertsona iritsi zirenean. Une horretan, Kontseiluko kide ziren elkarteek bat egin zuten «Ongi Etorri Errefuxiatuak» ekimenarekin, eta sentsibilizazio-, salaketa- eta harreralanari ekin zioten, Ermua Harrera eratuz.

Idoiak honela dio: «Mariarrok eta beste pertsona batzuek laguntza ematen genien hainbat lekutako migratzaileei. Horietako asko, zaintza-lanak egiten zituzten emakume atzerritarrak. Bitartekariarenak egiten genituen: etxebizitza eta enplegua bilatu, erroldatu, formakuntza, lanbaimena eta bizilekua lortu». Era berean, «indarkeria matxista jasaten zuten emakumeei laguntzen genien, eta atzerritarrek jasaten dituzten bidegabekeria eta abusu-egoerak ere salatzen genituen», gehitu du Idoiak.

Lan hori aurretik ere egiten zen arren, Ermua Harrera ekimen kolektiboa laguntza-sare zabalago baten parte da. Sare horretan hainbat proiektu antolatzen dira, harrera-lekua izan nahi du, eta ongi etorria eman errealtate ezberdinetatik ihesean datozen pertsona guztiei. Maria Rosariok hala zehaztu zuen: «Ongietorria eman nahi diegu munduko leku askotatik datozen errefuxiatu guztiei. Izan ere, leku horietan, gerrengatik edo beste gai batzuengatik –hala nola klima-arazoengatik edo generoaren, sexu-aukeraren edo beste gauza askoren ondoriozko jazarpenagatik– beren herrialdeetatik atera behar izaten dute».

Mariarrok, hala, familia, lagunak eta haien bizitza utzi behar izan zuten pertsonen errealtateekin topo egin zuen. Bizi berri bat eraiki behar zuten eta, aldi berean, ekonomikoki mantendu behar zituzten jaioterriko ahaideak. Younesek kontatzen duen bezala, «berak beti galdetzen zuen: “Zer daukazue? Zerbait behar duzue? Arazoren bat duzue? Paperetarako zerbait behar duzue?”».

Idoiak dioenez, Mariarro funtsezkoa izan zen elkartearen jardunean: «Niri izugarrizko laguntza ematen zidan. Ni beti egon naiz migrazioaren esparruan sartuago, niretzat bera zutabe bat zen.



Egun batean bai eta bestean ere bai, nik deitzen nion, “Mariarro, idatzi bat egin behar dugu leku horretarako; Mariarro kexa bat ipini behar dugu beste hartan; Mariarro, hau gertatzen ari da Harrerako pisan (...).” Mariarro egunero egoten zen eta egunero hitz egiten genuen Harreraren egunerokotasunaz».

Mariarrok ahal zuen guztian laguntzen zuen migratuen behar guztiak bete zitezen. Bere eskuzabaltasuna arlo ekonomikoan erakusten zuen, baina baita hemen ere familia bat zutela sentiarazten⁴⁵: adibidez, M'Barakek ahosabaiko mina zuenean, dentistara lagundu eta kontsulta ordaindu zion. Djenetek ere maitasun handiz gogoratzen du semea jaio zen eguna: Maria Rosario bisita egitera eta opari bat eramatera joan zitzaion.

Harrera hurbiltasunetik eta maitasunetik egiten zen, eta bertatik igaro ziren pertsona batzuek nostalgia handiz gogoratzen dituzte 2018ko eta 2019ko abenduaren 24ko bazkariak. Miguel Angelen eta Mariarroren etxean egin ziren. Djenetek gogoratzen du: «Miguel Angel sukaldean ari zen, ganbak egiten, arkumea labean (...); egun hori gure oroimenean egongo da beti». Younesek ere ez ditu ahazten: «Barre asko egiten genuen, txisteak kontatzen genituen; eta haiek familia bat bezala senti gintezen saiatzen ziren, ez gure herrialdetik kanpo bezala».


Izan ere, Mariarrentzat, bidegabekerien aurka borrokatzea –beste pertsona eta kolektibo batzuekin batera– bere bizitza eta aktibismoaren motorra zen. Ibrahimak ez dauka ahazteko Mariarrok poliziaren aurrean esku hartu behar izan zuen aldia, bakean utz zezaten. Margaren hitzetan, «Mariarro emakume indartsua zen, oso sentibera, baina, pertsona bat defendatzeko, gai zen poliziari aurre egiteko ere».

Ermua Harreran bere alderdi guztiak erakusteko aukera izan zuen, eskuzabaltasunetik hasi eta militantziaraino. Aukera izan zuen harrera duina eskaintzeko baliabide ekonomikorik edo sarerik ez zutenei, edo kalean zeudenei eta erakundeek bizkarra ematen zieten.

45 Jarraian aipatzen ditugun pertsonak Mariarrokekin Harrera bitartez harremantzen hasi ziren.







9. Dantzatu ezin bada, ez da nire iraultza

Aurreko guztia aintzat hartuta, pentsa liteke Mariarro zirt edo zartekoa zela, estrategia, kementsua, eta, batez ere, zorrotza –bai bere buruarekin bai militantzia-kideekin–, eta egia da hori, baina, era berean, dantzatzea, kantatzea, jatea, edatea, gozatzea... gustatzen zitzaion, eta feminismora eramaten zuen hori ere.

Mugimendu feministaren aldarrikapen nagusiak hauek izan dira: emakumeek jaiez gozatzea, kalera beldurrik gabe ateratzea eta kaleak iraultzarako espazio gisa ulertzea. Mariarrok gogoan izaten zituen helburu horiek, nola diskurtso teorikoan eta nola praktikan, parrandaz gozatzeko gogoz ibiltzen baitzen.

1980ko hamarkadaren hasieran, *Panpox Txaranga* sortu zuen Ermuko Emakumeen Asanbladak. Santiagoko jaietan aktiboki parte hartzen zuten emakumeek osatzen zuten txaranga. Bultzatzaileen artean Mariarro zegoen, eta berak kontatu zuen bezala, «jaietan, etxeko lanen banaketa eskatzen genuen: emakumeok ere jai-giroaz gozatzeko, eta kaleetan eta jardueretan emakumeon presentzia bultzatzeko. Geroago, asanbladatik, eskuorriak atera genituen: *Jaiak ere gureak dira* leloarekin» (FERNANDEZ, 2014). Ez zen diskurtso teorikora bakarrik mugatzen: Mariarrok primeran

uztartzen zituen militantzia eta parranda. «Nik txarangako jantziekin gogoratzen dut, kamiseta morearekin eta festako jantziekin», gogoratzen du Bego V.-k.

Ermuan, Martxoaren 8a festa eta topaketa eguna bihurtu zen. Hala azaldu zuen Mariarrok: «Ermuan geratuz gero, emakume gehiago batu ahal izango genituen Martxoaren 8ko ekitaldietara (...), eta manifestazioa beharrean, plazan elkarretaratze bat egin genuen. Geroztik, “Martxoaren 8ko topaketa” egiten da, emakume gehiago batzea eta ekitaldian aktiboki parte hartzea lortu genuen: jai-giroan, baina aldarrikatzen; irakurketa antzertuen bidez; ideia propioak ekarriz; elkarrekin muralak eginez; etab. Eta urte batzuetan, ehun emakume baino gehiago elkartu ginen bazkaltzeko», (FERNANDEZ, 2014).

Baina gozamen eta dibertsioaren aldeko aldarrikapen feministak ez ziren festa girora mugatzen. Mariarorentzat, emakumeentzako askapen indibidualerako tresna bat zen dantzatzea. Bego V.-k gogoratzen duenez, bera zinegotzi zenean, «Mariarrok dantza-ikastaroak diruz lagundu nahi zituen. Beti esaten zuen, “Makrame-ikastaroak ez, eduki eraldatzailea duten gauzak”. Mariarrok dantzari buruz emandako diskurtsoarekin, emakumeentzako eraldatzailea eta askatzailea izan zitekeela konbentzitu ninduen, ze grazia!».

Dantzatu eta kantatu, Ermuko feministek bazuten beren kanta-liburuxka ere. Edozein ospakizun aitzakia ona zen hura ateratzeko. Estrategia politiko gisa, abestiek funtzio bikoitza dute: lehenengoa, emakumeak ikusiak eta entzunak izatea; eta, bigarrena, mezu feministak jendearengana iristea. Zentzu horretan, Zaidak gogoratzen du: «Basaurin, abesti baten bertsio batean, Rafaela Carràren antzezpen bat egin genuen. Abestiaren letrak “komuna bat sortu eta zaintza partekatu” esaten zuen. Mariarrok berregokitu egin zuen: “Komuna bat sortu eta larrua jo eta jo”».

Mariarorentzat kantatzea ere estrategia askatzailea zen, Bego F.-ek gogoratzen du esaten zienean «Ermuan emakumeen koru bat muntatu behar zela. (...) Koru feminista bat, noski».

Mariarro Ermuko mugimendu feministaren borroka guztietan egon zen. Eragile garrantzitsua izan zen, eta askoren ustez, bera gabe Ermua ez litzateke gaur egun bezalakoa izango.

Berak hala azaltzen zuen: «Feminismoak mundu hau eraldatzeko gaitasuna du; ez bakarrik emakumeentzat, baizik eta guztientzat»⁴⁶. Eta gizarte justuago bat lortzeko ideia horren alde borrokatu zen, bere kideekin batera.

Hil osteko omenaldian, Ermuko mugimendu feministak aitortza egin zion Mariarriori, bizi osoan ibili baitzen borroka feministan:

«Mugimendu feministaren garaipen bakoitzean eta Ermuko borroka sozial aurrerakoi guztietan dago Mariarroken izerdia, baita bere zati handi bat ere. Izan ere, Mariarrok bere arima uzten zuen sinesten eta konprometitzen gintuen hartan. Eta lider eta estrategia feminista on gisa, denak aktibatzea eta martxan jartzea lortzen zuen. Ibilian egiten da bidea, eta berak hala egin zuen. Berak erakutsitako bide horietatik jarraitu nahi dugu; borroka feminista ezinbestekoa dela dakitenekin eta hori deskubritzen ari direnekin»⁴⁷.



46 Audio-elkarrizketa, *Drogetenitturri* (2020).

47 Maria Rosariori egindako omenaldiko zati bat.

A group of people, mostly older adults, are participating in a protest. They are wearing face masks and holding a large white banner with bold text. The background shows trees and a park bench.

GURE FAMILIAKOAK
DIPUTACIÓN Y VITA
RESPONSABILIDAD
BERTOTUTAKOA EZ DUGU AN



10. Zaintza ere politikoa da



Tradizionalki, arlo pribatura mugatu izan da zaintza, eta horren ardura familiako emakumeen gain utzi. Mariarrok, berriz, zaintzaren ikuspegi askoz zabalago, komunitarioago eta solidarioago baten alde egin zuen.

«Elkartasun-loturak ez lirateke familia-eremura mugatu behar. Legearen barruan pertsonen arteko beste lotura batzuk onartu behar lirateke, hierarkia horrekin hautsi ahal izateko», (ESTEBAN et al., 2010). Mariarrok horrela ulertzen zuen zaintza: familian, lagunartean eta komunitatean. Pertsonala politikoa bada, Mariarrentzat kolektiboa pertsonala zen, eta zaintza, berriz, militantzia. Horregatik, politika ulertzeko zuen moduagatik, zaintzaren erantzukizuna erakundeei ere bazegokiela uste zuen. Hain zuzen ere, bere azken borroketako bat egoitzen aldekoa izan zen, horiek komunitateari zerbitzu duinak bermatzeko.

Gertu zituen pertsona asko zaindu zituen: bikotekidea, ama eta aita; pisuko haurrak; lagunak; Harreratik igarotzen ziren pertsona migratuak; edo, oro har, egoera zailetan zeudenak. Margak kontatzen du: «*Taller de las Derivas*-eko ikastaroa egin genuenean, elkar nola ikusten genuen hitz egiten aritu ginen. Mariarrok bere burua emakume zaintzaile bezala ikusten zuela esan zuen eta “jendea zaintzen jarraitzen dut”. Hala zen, berak jende asko zaindu zuen. Ez zen Miguel Angeli buruz ari, hura ere zaintzen zuen, bere gaixotasuna hasia baitzen sintomak adierazten; Harrerako jendeari buruz hitz egiten zuen, EPARI buruz, haiei ere paperak egiten laguntzen baitzien. Saharako proiektuan zeudenak

zaintzen zituen, Djeditou adibidez, haur saharaueiz arduratzen zena. Bai, honela definitzen zuen bere burua: “Ni bai naiz emakume zaintzailea”. Zaintza nukleo familiarretik harago zabaltzearen aldekoa zen».

Joanak dioenez, Mariarrok pertsonarik ahulenak edo zaurgarrienak babesteko joera zuen: «Nire ustez, zentzu horretan, ahulekiko babesleagoa zen. Haurren babesa izan zitekeen, baina ez haurrak gustatzen zitzaizkiolako; adinekoekin berdina egiten zuen». Zaurgarritasuna lehenago edo geroago pertsona guztiengana iristen da. Eta Maria Rosariorentzat, zaintzaren erantzukizun soziala erakundeetan zegoen, baina baita ekintza indibidual askotan ere.

Horrela ulertu zituen bere harreman pertsonalak, eta zaintza-loturak sortu zituen lagunekin ere. «Zer moduz zaudete? Nola doazkizue gauzak? Ondo zaudete?» galderak ez ziren sekulan falta, norbait kezkatuta zegoela sentitzen zuenean. Zaindu egiten zuen, eta, jakina, askotan arduratzen zen. Juantxok kontatzen duen bezala: «Niretzat, nire laguna zen: berarekin poteatzen nuen, berarekin elkartzen, berarekin hitz egiten eta hausnartzen nuen, nire kezkak eta dudak konpartitzen nizkion, urte askoan elkarrekin egin genituen proposamenak, ekimenak eta herriaren gizarte-proiektuak; gauza asko partekatu genituen». Mariarro hor egoten zen momentu onetan eta zailetan: poteorako, parrandarako, ospakizunetarako, baina baita unerik gogor eta garrantzitsuenetan laguntzeko ere. Eta Margak honela dio: «Lagun bat hiltzen ari zen eta berak bazkaria antolatu zuen, agurra izango zela jakinda. Agur esateko aukera eman zigun, opari bat izan zen guztiontzat (...). Eta berak asmo betearekin egin zuen».

Maria Rosarioren samurtasuna ezezaguna da askorentzat, borrokan bakarrik ezagutu zuten pertsonentzat adibidez, baina haren ondoan egon zirenek izan zuten haren goxotasuna ikusteko aukera. Esate baterako, pisan geratzen ziren haur saharauien harira, Juliok zera gogoratzen du: «Behin baino gehiagotan ikusi nuen goxo jokatzeko, eta ez zen sarritan gertatzen baina... Ez dakit nola esan, “bestea, hain gogorra zena!”, eta hala ere...». Pisutik igaro zen haur bakoitzarekin inplikatu zen, bai modu praktikoan, baita emozionalki ere. «Berak eramaten zituen haurrak medikuarenera; lehenik hemengo medikuarenera, gero ospitaletara, Gurutzetara ...», azaldu du Antoniak. Djeditouk ere, zaintzaile samurra eta zorrotza ezagutu zuen: «nire ama bezalakoa zen».

Zaintzeko, eskuzabala izan behar da, eta bera hala zen. Zaidak «ezagutu dudana pertsonarik eskuzabalenetako bat» bezala gogoratzen du. «Eskuzabala zentzu askotan: bere denbora eta energia ematen zuen, eta alderdi materiala ere bai. Hori beti miretsi izan dut». Asko dira emateko gaitasun hori nabarmentzen dutenak: eskatu aurretik emateko gaitasuna, bueltan ezer espero gabe. «Duela 42 urte ezkontza batera joan behar genuen», esan digu Marianek, «ez genuen hainbesteko harremanik. Autoa hondatu zitzaigula jakin zuenean, berea uzten zigula esatera etorri zitzaigun. Eta bere autoarekin joan ginen; Mariarro horrelakoa zen».

Mariarrok asko zaindu zuen, eta batzuetan ahaztu egiten zitzaion bere burua zaintzea. Ameliak gogoratzen du: «Gaixorik egonda ere, beti besteak zituen buruan... “Ahaztu, jendeak aurrera egingo du zu gabe ere. Ez kezkatu, haien bizitzekin jarraituko dute”». Eta egia da, jendeak bere bizitza egiten jarraitzen du, hala ere, Ibrahimak dio: «Ez dugu ahazten, gurekin oso ona izan zelako (...) Bihotz txikia duen pertsona batek ez ditu horrelakoak egiten. Bihotz oso handia zuen eta horregatik ez dugu inoiz ahazten».







11. Bakarrik ezin dugu, elkarrekin bai

Lelo feminista horrek ondo laburbiltzen du nolako apustua egin zuen Mariarrok borrokak kolektibizatzearen alde. Bere ezaugarri nagusia pertsonak eta elkarteak mobilizatzeko gaitasuna zen: aliantzak sortzeko, baliabideak eskatzeko eta emakumeen eskubideen eta justizia sozialaren alde borrokatzeko.

Juantxok argi dauka: «Hausnartzea eta espiritu kritikoa eraikitzea ez zen nahikoa berarentzat; gauzak aldatu nahi zituen. Bazekien jendea nola inplikatu. Berarentzat, horixe zen modu bakarra erantzuteko, ekiteko eta bestelako ingurune bat sortzeko».

Gai zen besteak ere bere militantzia-espazioetan inplikatzeko; parte-hartzean eta inplikazioan sinisten zuen. Pertsonak borroken parte sentitzea eta feminismora hurbiltzea nahi zuen; indar kolektibo eraldatzailea sortzea, alegia.

Ez zen bere antzeko pertsona eta kolektiboetara mugatzen: pertsonen bizi-baldintzak hobetzeko asmoarekin, elkarrekin borrokatzeko prest zeuden mugimendu guztietara iristen zen. Juantxoaren hitzetan, «sarea sortu nahi zuen, bakoitza bere esperientzia eta interesetatik abiatuta. Bere helburua zen jendea zerbaiten parte sentitzea; egiteko eta ezagutzeko gogoia piztea. Hori guztia giro onean, noski».

Kontzientzia feminista zabaltzeko ahaleginean ere antzera jokatzeko zuen: emakume antolatuek zein antolatuta ez zeudenengana hurbiltzeko. «Oso garrantzitsua iruditzen zitzaion kontzientzia feminista ez zuten emakumeak erakartzea. Sustapen Zentroan parte hartzearen aldekoa zen, hangoak guregana hurbiltzeko», hausnartu du Ameliak.

Mariarrentzat, herritarren parte-hartzeak sortzen zituen benetako aldaketak, eta beraz, botereak kaletik etorri behar zuen. Bere begirada estrategikoari esker, egin beharreko bidea ikusten zuen, baita nor eta nola inplika zitekeen ere. «Mariarrok bazekien ezin zidala irratira joateko esan, ni ez bainaiz gai hori egiteko, baina bazekien beste gauza batzuetarako balio nuela», dio Marianek. Amelia eta Marianen iritziz, «bazekien nori eta zertarako eskatu laguntza. Dirua behar zuenean, ez dakit nor zetoerelako eta dentistara joan behar zuelako, “Dirua behar dut” esaten zuen. Diru hori ez zen berreskuratzen, jakina».

Eskatzen zuen inplikazio hori aise itzultzen zuen. Ez zuen inoiz eskatzen ematen zuena baino gehiago. «Ermuan mugimendu guztietan egon zen, beti topera lanean, beti aurrean eta behar zena egiten. Ez zen agindu eta joan egiten zen horietakoa», azpimarratu du Ameliak.

Indar hori zuen, eta oso zaila zen ezetz esatea. Alejandrok dio, arrebak laguntza eskatzen zionean, hain inplikaturik ikusten zuela non berak ere zerbait egin behar zuela pentsatzen baitzuen. «“Aizu, Alejandro, hasi da elikagaien bilketa-kanpaina, apuntatuko zara?”. Nola ez ba! Nik eskatzen zidan guztietan laguntzen nion».

Borroka askotan ibili zen. Adin, jatorri eta ideologia politiko guztietako pertsona asko inplikatzeko eta mobilizatzen jakin zuen. Kolektiboa indartzeaz gain, botere politiko eta soziala lortzea zen helburua.

Konplizitatea, sareen eraikuntza eta elkartasuna izan ziren Mariarroren borrokaren ezaugarri nagusiak. Eta hori zen munduan egoteko bere modua ere.





... MUJER
¿QUEN N...

ED 100
ED 100



12. Liderra, protagonista



Maria Rosario urakan bat bezalakoa zen, indarra eta bultzada, proposamenak egiteko eta argudiatzeko gai. Bere proposamenak defendatzen zituen etengabe, eta proposamen horien defentsara beste emakume batzuk lotzea lortu zuen.

Manolik dioenez, Mariarroren izaera horrek ekimen askotan parte hartzera bultzatu zituen: «Gogoratzen dut behin intsumisoen epaiketa batera joan ginela; *kapitaina* gurekin zetorren, noski. Hura bai esperientzia!». Sustapen Zentroko hainbat emakume berarekin joan ziren, «intsumiso baten epaiketa zelako joan egin behar genuen. Gure berotasuna emateko eta gure ahotsa entzunarazteko», gogoratu du, harro.

Mariarrok gurditik tiratzeko eta beste emakume batzuk erakartzeko zuen gaitasuna berresten du Bego F.-ek. Bere ustez, «lehenen zen leku guztietan. Izan ere, azkenean, “tira! Hori al zen dena? tira ba!” gaitasun hori zuen».



Hil ondorengo omenaldian, Anabelek zera esan zuen bere lagun eta militantzia-kidearen alderdi horri buruz: «Maria Rosario lider bat zen, bera beti izan da gure liderrik onena, benetan; eskola sortu zuen, uste sendoetan eta eskuzabaltasunean oinarritutako eskola politikoa. Bidegabekeriak benetan sumintzen zuen, eta horren aurrean indarrez, amorruez eta grinaz erantzuten zuen».

EMK-ko kide Txatok argi du: «Arrasto nabarmena utzi du, gaitasun askoko emakumea zelako, iniziatiba handikoa. Ahalmena zuen gauzak kolokan jartzeko eta erakundeak kritikatzeko; eta balioa ematen zien pertsonen eta, oro har, herritarren aldarrikapen edo nahiei. Nik uste dut zentzu horretan arrastoa utzi duela. Baina eragin hori erlatiboa da. Jende askok ezagutzen zuen, ospe handia zuen herrian egindako lanagatik, eta jarduera hori balioetsi egiten zen. Hala ere, herriko beste eremu batzuetako jende askok ez zuen ezagutzen edo ez zuen baloratzen. Eta hori da normalena, noski».

Borroka politikoaren barruan, kolektiboaren eta individualaren arteko orekaz aritu da Txato, beste pertsona batzuei espazioak irekitzeko beharraz, eta batez ere, delegatzeko saiakeraz.

«Maria Rosariok oso jarrera aktiboa zuen, hori zen bere nortasuna eta horrek alderdi positibo asko zituen. Baina ez da erraza kolektiboaren eta indibidualaren arteko oreka lortzea. Zaila da beti: lanak kolektibizatu eta banatu edo pertsona bat nabarmendu?». Txatok eta Maria Rosariok sarritan hitz egiten zuten halako gaiei buruz. «Komeni da irekitzea, tarte ematea, ahalik eta parte-hartzerik handiena bilatzea; delegatzen jakin behar da, Mariarro». Lan feminista, langileriarena, ingurumenaren aldekoa, bakearen aldekoa eta beste batzuk aipatzean, Txatok kolektiboa defendatzen du: «Nik uste dut denak hobeto funtziona dezakeela martxan jartzen ditugun indarrak kolektiboak badira, ahaleginak irekiagoak eta arruntagoak, pertsona bat eroriz gero, beste guztia ere erortzeko arriskua baitago. Eta horretaz gain, nire ustez... Ez dakit nola esan: kultura parte-hartzaileago baten ikuspegitik, gizartearen zeharkako begiradatik, aniztasuna ulertzeko nahitik, ideia ezberdinak jasotzeko gogotik... Uste dut soilik taldean dela posible aurrera egitea. Baina ez da gai erraza. Gizartea, bizitza eta pertsonak askotarikoak gara, eta gai sozial eta politikoetan, uste dut, aniztasun hori izan behar dela erreferentzia. Dagoeneko esperientzia handia dugu horretan».

Mariarroken protagonismoari buruzko eztabaidan iritzi ezberdinak daude. Juliok ere leku gehiegi hartzen zuela uste du, «Sahararen gaiarekin, adibidez, nik esaten nion “hemen ere zuk egon behar al duzu lehen lerroan? Emakumea, utzi besteei ere”. Espazioa hartzeko joera zuen, bere bulkadek horretara eramaten zuten. Ez modu txarrean, ez dut esango ezinbestekotzat jotzen zenik, baina norbaitek lidergo handia duenean, hori gertatu ohi da».

Bestalde, Beak –lagun eta borroka feministako kideak– honako hau aitortzen du: «Protagonismo handia zuen, egia da; baina nik beti pentsatu izan dut berak beste bat gehiago balitz bezala jokatzeko zuela. Eta, noski, eskubide osoa zuen bere jarrerak, planteamenduak, jarduerak, ekintzak edo zernahi planteatzeko. Eztabaida horietan hainbat erabaki hartzen ziren, eta egia esan, askotan berak planteatzen zituen proposamenak ateratzen ziren. Seguru asko berak gauzei ematen zizkien buelta guztiengatik eta bilerak prestatzeko zuen moduagatik izaten zen horrela».

Mariarro, feminismoan bidaide eta zubigile. Memoria kolektiboa ehuntzen

Maria Rosarioren argudiatzeko gaitasuna eta bere pentsamendu politikoa bere ahaleginari eta dedikazioari lotuta zeuden. Nereak –lagun eta Emakumeen Asanbladako kideak– uste du Mariarrok «dedikazio-gaitasun handia zuen eta beraz, lantalde askotan –alderdian edo Batzar Feministan– bere iritziak gainerakoenak baino landuagoak egoten ziren».



Beak planteatzen du, batzuetan, beste pertsona batzuk taldeetara erakarri nahi direnean, beren iritzia adierazteko espazioak nolabaiteko paternalismo batetik uzten zaizkiela. Uste du Mariarrok ez zuela hori sentitzen: «Berak pentsatzen zuena besterik ez zuen esaten, eta horretarako behar zuen denbora erabiltzen zuen. Baliteke pertsona batzuk deseroso sentitzea jarrera horrekin, baina berak ez zuen uste besteak mugatzen zituenik».

«Edozein lekuan egonda ere, hitza hartuko du», dio Bego V.-k, baina ez dator bat egozten zaion protagonismo-gogoarekin: «Ez zen ego-grina, bere irizpideekin oso konbentzituta zegoelako egiten zuen... Eta bere ekarpenak oso onak ziren».

Anabelek aurreko belaunaldiarekiko bereizketa egiten du. Orduko hartan, Mariarro mugimenduen ageriko aurpegia zela uste du: «Gure belaunaldian lidergo partekatua egon da: mutilak, intsumisia, feministak...», baina, orduan ere, «bera zen argia. Uste dut bazekiela bere lekuan egoten: behar zenean aurreratzen, edo, alderantziz, besteei lekua uzten. Gurekin hala egin zuen, espazioa utzi zigan, eta nahiz eta gure artean formari buruz eztabaidatu, berak hegoak eman zizkigun».

Anabelen maistra ere izan zen Mariarro: «Niri iruditzen zait lider zoragarria zela, benetan. Adibidez, auzo-elkartean lau hilabetez lanean ibili ostean, ezin zuen edonork hitz egin guztien aurrean. Berak hitz egin behar zuen, berak mobilizatzen baitzituen jende-multzoak, berak eramaten gintuen gero manifestaziora «*wawawa*» esanez; bera zen, eta ez beste inor. Gero gainerakook ere ikasi dugu. Ni Maria Rosarioren alaba politikoa naiz; nik ere badakit jendea mobilizatzen, baina berak irakatsi zidan».

Azken urteetan, Harrera Ermua-n murgildu zen Mariarro, elkartasunaren eta lankidetzaren alorrean. Han ezagutu zuen Idoia, eta eguneroko lanak lagun bihurtu zituen. Idoiak dioenez, lider batengan garrantzitsuak diren balioak zituen Mariarrok: «Zintzotasuna, eskuzabaltasuna, buru-belarri aritzeko gaitasuna, lanerako ahalmena, indarra eta pentsamendu politiko argia zituen. Balore horiek zituelako fidatzen zen jendea berarekin».

Mariarro, feminismoan bidaide eta zubigile. Memoria kolektiboa ehuntzen



Manuel Mariaroren laguna zen, ez zuten militantzia partekatu, baina saltsa guztietan elkartu ziren. Manuel gaztetxetik eta intsumisio-mugimendutik zetorren, batez ere. Lidergo terminoak «atzerakada pixka bat» eragiten dion arren, lider naturala deritzon hori zer den ulertzen du: «Mariarrok bazituen ezaugarriak: bere ahotsaren tonua eta bolumena, bere presentzia fisikoa, eta, jakina, zintzotasuna, eskuzabaltasuna, naturalki ateratzen zitzaiona, nire ustez kontrolatzen ez zuena».

Argi-ilunak

Maria Rosariok ez zuen erraz onartzen ezezkorik. Eztabaida baten ondoren adostutako proposamena berea ez baldin bazen, tematu egiten zen. Joanak irribarrez dio temosoa zela: «Ideia hori izan behar zen. Nik uste dut gero amore ematen zuela gauzetan, e, denok egiten dugun bezala, baina Mariarro temosoa zen horretan». Joanak eta Mariarrok antzeko jarrerak zituzten Berdintasun Kontseiluan: «Fronte komun bat zegoenez, elkarrekin geunden. Baina, gainerakoan asko eztabaidatu genuen; bera burugogorra zen, ni ere bai».

Bego F. ere bat dator: «Bere posizioetara eraman nahi zintuen. Argudiatu eta argudiatu ibiltzen zen, oso pentsatuta izaten baitzuen guztia; egia esan, oso gutxitan hitz egiten zuen hitz egiteagatik. Berarekin uste dut ez zitzaidala sekula gertatu: “Egia esan, ez dakit nondik heldu gaiari, ez dut pentsatu, ez dut irakurri... Berria da niretzat”; ez zitzaidan hori sekula gertatu berarekin. Bere uste sendoak zituen eta erotu egiten zen argudiatzen. Kontra egiten bazenion, “mmm” begiratzen zintuen, eta “a, ja!”. Batzuetan, ez zuen beste erremediorik: “Tira, ados, baina itzuliko naiz, itzuliko naiz”. Benetan horrelakoa zen, bere posiziora eramatea gustatzen zitzaion».

Nereak, Mariarroken lider-dohainak aipatu ondoren, hau gehitu du: «Uste dut zorrotzegia zela gatazkan eta aurrera eraman nahi zituen gauzetan; zaila zen ados ez zeundenean, une gogorrak izaten ziren. Momentu horietan: “Ni ez nator bat Mariarrokekin; ea nola defendatzen dugun, nola ateratzen dugun aurrera” pentsatzen zenuen».

Manuelek bere jarrera tematiaren ideia horrekin bat egiten du: «Mariarrokekin ados ez egotea arazo bat zen. Egoerak aztertzekeo gaitasun handia zuen: zergatik iritsi ginen une horretara; zer gerta zitekeen gero; nola antolatu Euskal Herritarrokeko batzordeetan. Berarekin ados ez bazeunden edo etor zitekeenaz bestelako ikuspegia bazenuen, oso zaila zen kontra-jartzea, ezta?».

“Zintzotasuna, eskuzabaltasuna, buru-belarri aritzeko gaitasuna, lanerako ahalmena, indarra eta pentsamendu politiko argia zituen. Balore horiek zituelako fidatzen zen jendea berarekin”

Idoiak dioenez: «Batzuek esaten zuten zapaltzailea izan zitekeela». Berak ez zuen horrela ikusten, nahiz eta, batzuetan, bere gainetik jarri: «Mariarro oso sutsua zen, ni ere bai, eta biok segitu nahi izaten genuen. Orduan berak gelditu egiten ninduen, “ixo, Idoia”, eta jendeak esaten zidan, “baina zuk nola onartzen diozu hori Mariarriori?”; “ez diot ezer onartzen, niretzat Mariarro nire irakaslea da”, nioen nik. Hark haren iritzia nirearen gainetik jartzen zuenean ere, ez nintzen zanpatuta sentitzen. Bere pentsamendu politikoa eta gaitasuna nireak baino askoz handiagoak eta zabalagoak ziren; ikasteko aukera bat izaten zen beti. Ni Mariarrokekin ez nengoen ehuneko ehunean ados, baina garrantzitsuena errespetua zen, eta gai batzuetan berak bazekien ezin ninduela konbentzitu ezta argudiorik onenekin ere, eta nik banekien nire argudioekin ez nuela bera konbentzituko».


Baina tematsua izateak bazuen alde onik ere. Beak gogoratzen du borroka armatuaren inguruan desberdintasunak zituztela: «Mariarrok ez zuen etsitzen bere planteamendu eta sinesmenak aurkezte, eta horrek argudiatzera behartzen ninduen. Nik ere ez nuen erraz etsitzen, eta eztabaida gogorak izaten ziren, baina pentsatzeko balio zidan: “Nik zer uste dut honetaz? Eta zergatik pentsatzen dut hau?”. Haren kontrako jarrerak diskurtso bat eraikitza behartzen ninduen. Horrekin talka handiak izan genituen, sufritzen nuen, baina balio izan zidan. Eta nik positiboki baloratzen dut. Egia da ez geundela ados, eta orain ere ez ginateke ados egongo gauza batzuen irakurketan, baina bakoitzak bere ideia propioa izatearen aitortza bat zegoen».

Joanaren ustez, Mariarrok konbentzimendu osoz jokatzeko bazuen: «Bera konbentzituta bazegoen, berdin zitzaion dena: “Nik hau egingo dut eta kito”. Gainerakook, zentzu horretan, segurtasun-falta handiagoak genituen, eta beraz, nik asko baloratzen nuen gaitasun hori: “Konbentzituta banago, berdin zait; egin egingo dut”. Hortik besteak konbentzitzen gintuela uste dut».

Iñakik –Mariarroken lankideak– kontatu zion gertaera bat partekatu du Bego E-ek: Mariarriori esker, Hambre Klubean lan egiten zuten prostituta batzuek banku-zerbitzu pertsonalizatua lortu zuten. «1970eko hamarkadan, ez zegoen kutxa gotor pribaturik ez kutxazain automatikorik, ezta beste herrialde batzuetara dirua bidaltzeko modurik ere, gaur egun bezala. Emakume horiek aurretutako dirua bankuko kutxa gotorrean gordetzea lortu zuen Mariarrok, banakako gutun-

azal batzuen barruan. Ziur aski ez zen legezkoa izango, baina hala egiten zuten. Modu horretan, beren dirua leku seguru batean zuten, eta behar zutenean ateratzen zuten. Konfiantza-kontua zen, han ez baitzen ezer erregistratzen, baina hura sakratua zen. Bitxia bada ere, Klubaren jabea bankuko bezeroa zen; baina emakume haiek, atzerritarrek gehienak, ez zuten kontu bat zabaltzeko aukerarik. Eta, beraz, Mariarroren eskuzabaltasun eta burugogorkeriagatik, zerbitzu eksklusiboa lortu zuten». Manolik barre egiten du: «Ez zuen nagusia bakean utziko, seguru: hori horrela izan behar zela, eta hala izan zen».

**“Arrasto nabarmena
utzi du, gaitasun askoko
emakumea zelako,
iniziatiba handikoa.
Ahalmena zuen gauzak
kolokan jartzeko eta
erakundeak kritikatzeko;
eta balioa ematen zien
pertsonek eta, oro har,
herritarren aldarrikapen
edo nahiei. Nik uste dut
zentzu horretan arrastoa
utzi duela”**




...ha
...bana
...undo!

لا للعنف
ضد النساء

EMAKURAK
ZEIN
GAUR...

LO CONTRARIO DE
FEMINISTA
es
IGNORANTE.

AN FEMINISTA
QUEMAY LA ESCUELA?
AUTONOMIA ALTERNATIVA CITA
EN KORTXUBI PABLO



13.

Estrategia: begirada globala eta alderdi praktikoak bateratzea

Kolektiboen barruan, pertsona batzuek trebetasun handiagoa dute ekintza berriak proposatzeko, haien eragina aurreikusteko edo ideia politiko abstraktuak proposamen zehatzetan gauzatzeko. Maria Rosariok bazuen gaitasun hori. Esperientziaren, borroka politikoan emandako orduen edo ekintza konplexuagoak edo arriskutsuagoak aurrera ateratzeko zuen ausardiaren ondorioa izango zen, beharbada. Baina egia esan, bere begiradak funtsezko elementu bihurtzen zuen.

Berdintasun-politiken esparruan, Ermua ez zen udalerri aitzindaria izan kasualitatez: feminista antolatuak zeuden atzean, eta denbora ematen zuten pentsatzen, konspiratzen eta estrategiak asmatzen. Mariarro beti zegoen prest borroka soziala eta lan instituzionala nola uztartu pentsatzeko eta eztabaidatzeko. Batzarreko beste emakume batzuk ere modu informalagoan biltzen ziren, borroka-estrategiak lantzeko.

Gaitasun estrategikoari dagokionez, Bego V.-k zera nabarmendu du Mariarrori buruz: «Pertsona praktikoa zen, ez zen teoriara mugatzen. Zaintzen eztabaidan, adibidez, bazekien nola jarri praktikan mendekotasun-legea Ermuan. Hiriaren eredua genero-ikusegikitik teorizatzen genuenean, berak teoria hori Ermuko proiektu zehatz batera ekartzen zuen. Niretzat zoragarria zen hori».

“Tokian tokikoa eta globala, teorikoa eta zehatza uztartzen zituen Mariarroken begiradak. Planteamendu orokorra –ideologikoa, politikoa– udalerriaren errealitatearekin uztartzeko gaitasuna zuen; gauzak lurreratzeko eta, gero, diskurtsoa hedatzeko gaitasuna”

Tokian tokikoa eta globala, teorikoa eta zehatza uztartzen zituen bere begiradak. Anabelek dioenez, «planteamendu orokorra –ideologikoa, politikoa– udalerriaren errealitatearekin uztartzeko gaitasuna zuen; gauzak lurreratzeko eta, gero, diskurtsoa hedatzeko gaitasuna».

Nereak gaztetatik ikasi zuen: “Erakundeak erabiltzeko eskubidea genuela sinetsi genuen, eta hala egiten genuen. Taldeetara jende zaurgarriagoa edo askoz aukera gutxiago zituena eramaten saiatzen ginen».

Ekintza batzuen erradikaltasunak zera eskatzen zuen: «Egiten genuena prestatu behar genuen, esango genuena prestatu, eta nork hitz egingo zuen pentsatu». Nereak gogoratu du hamabost urte zituela, «ez, ez, bi neska eta bi mutil, ez, ez euskaraz eta gaztelaniaz», hori guztia prestatzen ikasi zuten. «Gerora, Iruñera joan nintzenean, bileretan pentsatzen nuen,

“baina, jendeak ez al du inoiz honetan pentsatu?”. Eta hori guk gaztetatik ikasi genuen, 15 edo 16 urterekin, Mariarrori eta ingurukoei esker, baina batez ere berari esker. Nik uste dut oso estratega ona zela».

Alderdi praktikoak oso presente zeuden gizarte-mugimenduetan. Manuelek Gaztetxeko Asanbladan militatzen zuenean, Mariarro dezente zaharragoa zen eta ez zuen asanbladan parte hartzen. Baina ordurako, poteatzeko eta La Polla Recordsen lehen diskoaren erritmoan dantzatzeko elkartzeko ziren. «Gaztetxeko jaialdietarako kaleko argiteriatik hartzen genuen korrontea. Orduan alkateak zer egiten zuen? Guri kablea kendu ezker, auzo osoa argirik gabe uzten zuen. Guk, kable luzeago batekin, Zubiarreko farola batetik hartzen genuen; alkatea ez zen ausartzen herriaren erdigune osoa argirik gabe uzten, noski. Kontzertuekin zarata ateratzen genuen, eta Guardia Zibilaren kargak egoten ziren. Horrek “non gaude?, nola iritsi gara hona?, eta zer gertatuko da gero?” pentsatzera eramaten gintuen. Auzokoekin ere hitz egiten genuen,

gure kontra jar ez zitezen; eta hori Mariarriori esker zen». Eta Gaztetxeko Asanbladak kartelak jartzen zituen atari guztietan: egoera azaltzeko eta bizilagunak aurka ez jartzeko.

Antolaketa eta agintea

Ekintzak eta jarduerak antolatzeko garaian, Maria Rosariok ekintzen ondorioak eta eraginak aurreikusten zituen. Berarentzat garrantzitsua zen pertsonak nola inplikatu ikustea eta zereginen banaketa zehaztea. Gauzak aurreikusi bezala aterako zirela ziurtatu nahi zuen, dena kontrolpean izan.

Bego F.-ek dioenez, ezer antolatzeko momentuan emakume guztiak kontuan hartzen zituen: «Funtzioak oso emakume ezberdinen artean banatzen zituen. Gertukoago zituenei zeregin zailagoak proposatzen zizkien, eta hain gertu ez zituenek edo apur bat ihes egiten zutenek –gauza batzuetan bat ez zetozelako, edo feminismoaren gaia urrunago geratzen zitzaielako– beste funtzio batzuk betetzen zituzten. Bazekien batzuk ez zituztela hainbat gauza egingo, eta horren arabera banatzen zituen lanak».

Maixabel –Emakumeen Sustapenerako Zentroko ikasle ohia– bat dator ideia horrekin: «Zentroko emakumeoi esaten zigutenean “egun batzuetan dendan egon behar da Saharakoarentzat”, bazekien horretarako prest geundela denak. Eta beldur pixka bat gehiago ematen ziguten gauzetarako beste emakume batzuk zituen. Lan guztiak ziren garrantzitsuak».

Ez zuen ezer airean uzten, dena ondo lotuta egon zedin saiatzen zen. Hala uste du Bego F.-ek: «Idatziak nork irakurri ere pentsatzen zuen. Nik uste dut estrategia handia zela. Politikaren agertokiak oso ondo ezagutzen zituen, baina herria eta bertakoa ere, betidanik hor egon zelako. Animalia politikoa zela esan daiteke. Ezagutza hori borroka guztien alde erabili nahi zuen». Lehenik, Mariarrok proposatu egiten zuen, eta «gero gauzak adostuta edo beste



arrazoi batzuegatik egiten ziren». Proposamena Mariarrok zein beste pertsona batena izan, erantzukizuna kolektiboa zen: jarduerak taldean eztabaidatzen, adosten eta antolatzen ziren.

Zereginen banaketa horretan, manifestuen irakurketa oso modu ezberdinetan bizi zuen bakoitzak. Nushu taldeko Joanari, adibidez, ikara ematen zion jendaurrean irakurtzeko: «“Irakurri egingo duzu” esan zidanean, larritu egin nintzen, eta ezetz esan nion. Ezetz esan nion aldi bakarra izan zen; ziur nengoen ez nuela irakurriko, ez nintzela igoko, lotsa ematen zidan. Baina berak: “Igo egin behar duzu, igo egin behar duzu”. Egia da, erakundeak gureak badira, ardura ere gurea dela, eta, beraz, betebeharrak ditugula».

Anabelek, aldiz, ahalduntzeko moduko esperientzia izan zuen: «Nik gogoan dut lehen hautagaitza herrikoia, nik ez nekien haizeak nondik jotzen zuen ere. Mariarrok, “hitz egin behar duzu eta hitz egin behar duzu”; ni paperak eskuan, zer esaten ari nintzen ez nekiela. Baina, hitz egin behar nuen... Horrela zen, eta kito: “Oso ondo hitz egin duzu”, autoestimua erantzutuz itzela zen hori».

Inork ez du ukatzen haren garra eta agintzeko joera. Eta une gogorrak egon baziren ere, jendeak maite zuen Mariarro, bere alderdirik gogorrena orekatzen zuelako bere alaitasun, konpromiso eta eskuzabaltasunarekin.

Egia esan, pertsona batek aginte hori hartzen duenean, talde oso batek onartzen duelako da nolabait ere. Zentzu horretan, Joanak zera uste du: «Edonori “hau egin behar duzu” esateko zilegitasuna zuen, eta egin egin behar zenuen. Ez zegoen beste aukerarik, ez». Bego F.-ren ustez,

“Inork ez du ukatzen haren garra eta agintzeko joera. Eta une gogorrak egon baziren ere, jendeak maite zuen Mariarro, bere alderdirik gogorrena orekatzen zuelako bere alaitasun, konpromiso eta eskuzabaltasunarekin”

agintzeko modu horrek alde positiboa zuen: «Ez zen kasualitatea horrela egitea, hori zen bakoitzak bere erantzukizun edo konpromisoak hartzeko modu bakarra. Nik uste dut ona zela horretan, oso ondo egiten zekien. Beste batzuek beste argudio batzuekin egiten dute, baina bere estiloa hori zen: zuzen eta jo».

Joanak barre egiten du Mariarroken estrategia bera hartu zuela kontatzen duenean: «Egun horretan, errepidea moztu behar genuen, eta egia esan, denetarik egitea egokitu zitzaigun. Mariarro nire atzean gogoratzen dut. Errepidea moztu behar nuen eta “norbaitek megafonoa hartu behar du”, behin eta berriz errepikatzen zuen. Azkenean megafonoa hartu nuen, bestela ez zelako geldituko. Megafonoa kendu nion eta berak egiten zuen gauza bera egin nuen: beste norbaiti pasa nion; berak niri eta nik beste norbaiti, horrela egin behar izan nuen».

Nushu taldeko Itziarrek ere, Azaroaren 25eko eta, batez ere, Martxoak 8ko grebak gogoratzen ditu: «Oso egun luzeak dira eta gauza asko egin behar dira. Dena oso ondo antolatua badago ere, beti sortzen dira ezustekoak. Eta egun horietan gogoratzen dut esaten zuela: “Hau nork egingo du? Eta beste hau, nork?”. Egun batean, ez zegoen inor megafonoarekin, batzuetan gutxi ginen eta. Orduan, Asanbladako guztiak eta Nushu taldeko guztiak geunden, denak lanpetuta: batzuk pankartarekin, bestea irakurtzen, besteak ez dakit zertan eta “bai, baina norbaitek eraman behar du megafonoa, megafonoak egon behar du”. Dena kontrolpean zuen».

Rosak gogoan du Mariarroken deia, bere gaixotasunaren berri txarra eman zionekoa. Mariarro, horri buruz hitz egin ondoren, esan zion: «Arraro samarra irudituko zaizu orain hau galdetzea, baina egin al duzu dirulaguntzarena?». Asanbladako kontu bati buruz ari zen.

Djeditouk eta Antoniak Mariarroken alderdi horri kontra egin behar izan zioten gaixotasunak zituzten haur saharaiuen pisan. Djeditouk Mariarroarekin zuen harremana oso emozionala zen: «Nire ama bezala zen, ulertzen? Bera arduratzen zen nitaz, bera zen nirekin haserretzen zena». Antoniak barre egiten du, baina Mariarroken izaera hori berresten du: «Gure liskarrak izan ditugu, jenioa zuen, eta ematen zionean, benetan ematen zion. Hala

eta guztiz ere, harenganako miresmena eta maitasuna oso handiak dira. Oso ondo pasatzen genuen. Afariak egiten genituen; Djeditouren urtebetetzea zenean, denok elkartzen ginen ospatzeko».


Djeditouk barrezka kontatzen du Saharako kanpamenduetara egindako bidaia batean gertatutakoa: «Esan zidan paperak gainean izan behar nituela eta hemen jarri behar nituela [tripa seinalatzen du]. Orduan, noski, 40 gradutan, bero egiten zuen eta letra guztiak ezabatu ziren!». Paperen eta gerriko-poltsaren artean gaizki-ulertu bat izan zuten. «Nik esan nion ez nuela gerrikorik; berak ulertu zuen gerriko poltsa falta zitzaidala, eta beraz, ez nituela paperak nirekin. Emakumearen Etxean izan zen, besteez ez zuten ulertzen, “zer gertatzen da?” galdetzen zuten, eta Mariarro haserretu egin zen. Lasaitu zenean, esan nion: “Nik ez dizut hori esan. Emakume honen etxean ahaztu dudana gerrikoa da, ez gerriko poltsa!».



LAS KOÑO RECORDS-ek
AURKEZTEN DUTE:
SALVE MARIARRO
MUNDO CABRON
AXPE
SAGARDOTEGIAN
20/11/19



14. Mariarro laguna



«Zer gertatuko litzaieke emakumeei patriarkatuan, emakume-sarerik gabe? Bidea erakusteko eta elkarrekin eusteko, ingurukoak izan gabe? Zer gertatuko litzaiguke lagunik gabe?», (LAGARDE, 2006). Hitz horiek definitzen dute Mariarrok lagun gisa zituen baloreak.

Horrelakoa zen, naturalki ateratzen zitzaion, eta lagun on bati eska dakioken guztia zuen: eskuzabaltasuna, ardura, zintzotasuna –onerako eta txarrerako–, konpromisoa, aholku onak, konfiantza, barreak, poza, eta, batez ere, bere esku bazegoen laguntzea, lagunduko zintuela.

Burugogorra ere bazen bere ideiak defendatzen, eta bere izaera sutua deserosoa izan zitekeen, ez baitzion ihes egiten gatazkari. Marianek hala dio: «Hori zen bere izaera: zikloi bat zen maila guztietan, baina baita oso sentibera ere. Mariarrok norbaitekin eztabaidatzen bazuen, gero negar egiten zuen (...). Oso sentibera zen, oso gogorra izan arren. Dualtasun hori zuen. Berarekin haserretuz gero, zerbaitegatik ados ez zeundelako, deitu egiten zintuen gero. Kezkatuta geratzen zen. Lagunen laguna zen».

Eta dualtasun hori bere ideien defentsan eta desberdin pentsatzen zutenen errespetuan ere bazegoen. Horretan ere bat datoz pertsona asko, hala nola Manuel: «Azken urteetan eztabaidak izan nituen Mariarrokekin gai nazionalari buruz, borroka armatuaren erabilerari buruz, eta argi zegoen ez geundela ados gauza askotan. Berak bazekien, nik banekien, baina begira, gauza garrantzitsuagoak daude: feminismoa, hirigintza, elkartasuna... Gauza garrantzitsuagoak daude, eta horietan ados geunden».

Jende askok hitz egiten du haren eskuzabaltasunaz, haren laguna izan ala ez. Manuelek dio: «Uste dut bere eskuzabaltasuna ez zuela kontrolatzen. Gaztetan, gauza materialekiko zuen harremanak harritu gintuen: nor ez da Mariarroken etxean geratu? “Etxea zuentzat”, Mariarroken autoa Euskal Herri osoan zehar ibili da antolatzen genituen kontzertu punkien kartelak itsasten, intsumisioaren aldeko manifestazioenak, dena (...). Ez zuen kalkulatzeko materiala, denbora, arreta (...). Berak ez zuen esaten: “Horrela jokatu behar dut, jende horrek zera egiteko...”. Ez, ez, horrela zen, kito. Hamazazpi edo hemezortzi urte genituenean, zuek hamalau, eskuzabaltasun horrek harritu egiten gintuen; gure inguruko adinekoek ez zutelako horrela jokatzeko beren etxe, auto eta gauzekin, ezta?».

Mariarroken lagun-taldea oso anitza eta aberatsa zen, eta adin guztietako pertsonak har zitzakeen laguntzat, Beak nabarmentzen du: «Normalean, adiskidetasun-harremanetan, adin-tartea nahiko txikia izaten da, baina gure arteko aldea handia zen, eta hala ere, lagunak ginen». Litekeena da belaunaldien arteko adiskidetasun horiek militantzian izatea jatorria. Manuelek eta Nereak planteatzen dute: «Militantziak, hainbat urtez, denbora asko hartzen zigun, eta lagunak ginen denok; gure kuadrilla ere militantziaz sortu zen. Militatzen ez zuen jendearengandik bereiziz joan zen Mariarro, eta beraz, bere adineko jendearengandik bereizi zen; bera gurekin geratu zen, gu ginelako jarraitzen genuenak».

Eta pertsona askorentzat Mariarrokekiko adiskidetasuna militantziaren eskutik bazihoan ere, Blanquientzat ez zen horrela; lehengusinak ziren, eta txikitatik ezagutzen zuten elkar: «Nik beste adiskidetasun bat bizi izan dut. Zuek militantzia bizi izan duzue, alderdia, eta ez dakit zer gehiago. Ni beti izan naiz Mari Carmenen eta Maria Rosarioren laguna, EMKkoak eta lagunak ziren biak, eta primeran moldatzen ginen».



Mari Carmen Mariaroren lagun ona izan zen, alderdikidea, eta elkarrekin abenturak bizitakoa. Julio bere bikotekidearen ustez, «patroi berarekin moztu izan balituzte bezala zen». Mariarrok eta Miguel Angelek asko bidaiatzen zuten, eta Mari Carmenek eta Juliok ez zieten bidaia luzeetara laguntzen, baina bai asteburuetako irteeretara: “Etxarriraino etorri nahi duzue? Tira, tira!”. Asteburu pasa joaten ginen». Duela urte batzuk Mari Carmen hil egin zen, baina ordura arte adiskidetasun estu horri eutsi zioten, «hemen ia egun osoa elkarrekin ematen genuen eta», gogoratzen du Juliok.

Lagun onei entzutea, ulertzea eta aholku onak ematea baloratzen zaie; Maria Rosariok hori betetzen zuen. Bere inguru hurbileneko hainbat pertsonak esaten dute aholku bila jo izan zutela berarengana, bere irizpide praktikoak oso egokiak zirelako bai militantziarako bai bizitzako gauzetarako ere. Anaia Alejandrok kontatzen duenez, bizitzako une batean galduta sentitzen zen bere etorkizuna zela-eta, eta Mariarrok esan zion: «“Zergatik ez duzu magisteritza ikasten? Laburragoa da, zuretzat ez du zaila izan behar”. Nik ez nuen inoiz horretan pentsatu, baina hizketan aritu ginen, eta konbentzitu egin ninduen. Izugarri gustatu zitzaidan, eta 40 urte eman nituen institutueta lanean, maisu eta zuzendari». Bera ez zen bakarra izan; Idoiarentzat ere garrantzitsua izan zen zentzu horretan: «Gertatzen zitzaidana konta niezaiokeen konfiantza osoz; gai sozialak eta gauza pertsonalak konpartitzen nizkion. Bere erantzunak beti laguntzen zidan; nola jaso eta itzultzen zidan nik kontatzen niona, garrantzitsua zen niretzat. Benetako laguna zen».

Baina aholkuak ematera mugatu balitz, ez zen Mariarro izango. Izan ere, teoritik ekintzara azkar pasatzen zen: bere inguruko norbaitek arazoren bat bazuen, ahal zuen guztia egiten zuen hori konpontzeko. Eta horrela gogoratzen du Gordok –lagun eta militantzia-kideak–: «Gaztetan, gaztetxeko kontuak zirela-eta, manifestazio eta borroketan, nire amaren telefonoa eta Mariarrorena nekizkien. Eta, duela gutxi arte, azken grebetan ere, Mariarroren telefonoa eramaten nuen mugikorrean; nire kide sindikalista guztiek, aldiz, abokatuaren telefonoa eramaten zuten. “Dei bakarra duzue bakoitzak” esanez gero: “Nik Mariarrori deituko diot eta aterako nau”».

Honek luzerako eman lezake, izan ere, asko dira bere adiskidetasuna, eskuzabaltasuna, leialtasuna eta beste erakusten duten gertakariak. Askok hau pentsatzen omen dute egoera zailetan daudenean eta nola jokatu ez dakitenean: «Egoera honetan, zer egingo luke Mariarrok?».

Musika: Mundo cabrón. La Polla Records
Hitzak: Begoña Fernández

Por su coco pasa un tren y hace tiempo que encontró la vía,
su cabeza va muy bien con el txaka-txaka-txaka
txaka-txiki-txaka txaka-txaka-txiki-txa

Todo el mundo la conoce, no hace falta preguntar
Ella hace lo que quiere, no le quites la razón
Ha cumplido los setenta, se nos va haciendo mayor
Tiene la cabeza dura, pero un gran corazón
Se llama Maria Rosario, esta es su canción

No soporta la injusticia, en las calles gritará
Siempre junto a las mujeres diciendo al machismo NO
En el Sahara su huella hace tiempo que dejó
Incansable militante, esa ha sido su pasión
En Ermua Maria Rosario manda mogollón

Es de izquierdas, muy de izquierdas, de mil salsas perejil
Con un buen vino en la copa le gusta dar su opinión
Se puede contar con ella, alza bien alto la voz,
Si se empeña lo consigue, no lo dudes, créelo
Cambia esta puta vida y hace el mundo mejor

Es Mariarro, nuestra amiga, lo queremos festejar,
larga vida, compañera, (e)ta zorionak!!

Por su coco pasa un tren y hace tiempo que encontró la vía,
su cabeza va muy bien con el txaka-txaka-txaka
txaka-txiki-txaka txaka-txaka-txiki...

2019ko urria

Mariarroken urtebetetzeko 70.festa





15.

Laguna bizitzan, laguna borrokan

Miguel Angel funtsezkoa izan zen Mariarroken bizitzan. Egia da, bere nortasun indartsuaren ondoren, Miguel Angel bigarren maila batean zegoela zirudiela, baina funtsezkoa zen Mariarrentzat. Blanquik kontatzen duen bezala, «uste dut bata bestearen osagarri zirela, bata bestearentzat eginda zeuden».

Ermuko borroka politikoa modu aktiboan ibili zen Miguel Angel: klandestinitatean egon zen, EMKn (eta ondoren Zutik-en); zinegotzi izan zen, eta Osasun Batzordean parte hartu zuen lehen legealdiko Herri Hautagaitzan; Familien Elkarteko kide izan zen; Sahararekin egindako proiektuetan aktiboki parte hartu zuen; eta Ermuko mugimendu sozial eta politiko desberdinen borroka babestu zituen, besteak beste.

Miguel Angelek eta Mariarrok herritik ezagutzen zuten elkar. Txatok dioenez, «Miguel Angelen familia hona etorri zenean, aita Gipuzkoa eta Bizkaia arteko arieletako funtzionarioa zen, Olarreagan». Arielen Etxean bizi izan zen familia, eta, ondoren, Ermura joan zen bizitzera.

Miguela eta Mariarroken arteko ezkongai-garaia noiz hasi zen ez dago argi. Juliok uste du gaztetan mendi-elkarte bereko kide zirenean hasiko zela dena: «Hor ezagutuko zuten elkar. Ez nago ziur, e? Baina segur aski elkarte horren bidez izan zen (...). Gogoratzen baitut, Miguelak 70 urte bete zituenean, argazki bilduma bat egin genuela, eta oraindik ezkongai ez zireneko argazki batzuk zeudela; elkarri samurki begira agertzen ziren».

Maria Rosario eta Miguel Angel elizan ezkondu ziren. Badirudi, erlijioagatik baino, arrazoi pragmatikoengatik izan zela horrela. 1973ko urriaren 12an izan zen: Hispanitatearen eta Pilarreko Ama Birjinaren egunean, Guardia Zibilaren zaindariaren egunean. Bikoteak ezkontza La Fondan⁴⁸

48 Ermuko Hostal Mélida, garai hartan La Fonda esaten zioten.

ospatzea erabaki zuen. Miguel Angelek Mariarriori txantxa bat egin zion: Hispanitatearen eguna zela eta, La Fondan Guardia Zibilaren bazkari bat egongo zela esan zion, eta kaporalak, ezkontza bat ospatuko zela jakitean, emaztegaiarekin dantzatzea eskatu zuela. «Ba, ez naiz ezkonduko!», ebatzi zuen Mariarrok. Zorionez, ezkontza ospatu zen, eta Guardia Zibilik gabe.

Miguela elektrikaria zen, eta bere lanbideak, bizitzeko ez ezik, aktibismo politikorako ere balio izan zion. Juliok gogoratzen du: «Gaztetxean arazo asko zituzten. Miguel Angelek eta biok elektrizitatea jartzen genien, kontzertua zegoen bakoitzean argia kentzen zietelako. Udaletxeak inguru horretako argia kentzen zuen, kontzerturik egin ez zezaten. Miguel Angelek deitu eta esaten zidan: “Aizu, Julio, 100 edo 200 metroko kable bat botako dugu Gaztetxekoei argia emateko”, farola batetik korrontea hartu eta jarri egiten genien». Tindufeko kanpamentuetako emakumeen etxeetan ere instalazio elektrikoa jarri eta antolatu zuen, Alejandrok kontatzen duenez.

Miguela eta Mariarroken arteko intimitatea erabat ezagutzea zaila da, beste edozein bikotetan bezala, eta Alejandrok dio: «Beren tirabirak izango zituzten, denok bezala», baina egia da oso ondo konpontzen zirela. Jatea gustatzen zitzairen, festa egitea, lagunekin egotea, mendira joatea, bidaia handiak egitea eta, batez ere, elkar zenbat maite eta errespetatzen zuten transmititzea. «Haien urteurrena ospatzen zuten», gogoratzen du Beak.

Bizikidetzan, gauzak adostuta zituzten, Alejandrok dioenez: «Etxean bakoitzak bere lekua zuela uste dut; zu hor, ni hemen (...). Zuk badakizu sukaldean, ba zuk prestatu janaria, nik ez daukat ideiarik ere. Ni beste gauza batzuez arduratzen naiz...». Izan ere, zure bizitza militantziara emana dagoenean ezin bestela izan; antzeko zerbait gertatu zen haurrik ez izateko erabakiarekin. Dirudienaz, militantzia eta hazkuntza bateraezinak zirela adostu zuten, nahiz eta, pertsona batzuen ustez, Miguelari gehiago gustatzen zitzaizkion haurrak Mariarriori baino.

Gizarte patriarkalak inposatzen duen maitasun erromantikoaren eredutik kanpo ulertzen zuten bikotea eta horretatik sortutako loturak ere. Zalantzan jartzen zituzten monogamia, jeloskortasuna, bizitza osorako maitasunaren ideia, bikotea bizitzaren erdigunean jartzea eta beste hainbat balore tradizional. Belaunaldi berrientzat erreferente alternatibo bihurtu ziren. Anabelek

kontatzen duenez, bikote-eredu tradizional hori zalantzan jartzen zuten: «Nik uste dut bikote desberdina zela guretzat; beno, ez dakit, ligatzearen eta bikote irekien kontuarekin. Beraien adineko jende gutxi sartzen zen horretan, diskurtso hain argiarekin. Beste kontu bat da gero zer gertatzen zen. Izan ere, maitasun erromantikoa eta monogamia zalantzan jartzen genuenean, planteatu ere egiten ez zuen beste jende bat zegoen, haien adinekoa. Aldiz, Mariarrok eta Miguel Angelek, batak zein besteak, planteatu egiten zuten. Zentzu horretan ere erreferenteak ziren, eta garrantzitsua zen; guretzat hala zen une hartan behintzat».



Miguel Angelek 70 urte bete zituenean, liburu bat oparitu zioten. Mariarrok bizitza osoko bidelagunari eskaintza bat idatzi zion bertan. Bere hitzetan, berarekiko sentitzen zuen maitasuna islatzen zuen, eta, beharbada, bizitzaren azken etapari aurre egiteak dakarren beldurra ere bai. Beti eskutik helduta joango zirela jakin arren.

Miguel Angel, zahartzen hasiak gaude.
Urte askotako ibilbide partekatua,
ez da beti arrosa kolorekoa izan.
Zer ekarriko digute datozen urteek? Nork daki?
Zurekin egon nahi dut, badakit.
Maite zaitut.
Mariarro



Maria Rosario, adiskidea, laguna,
borrokalari nekaezina, saregilea

Maria Rosario, feminista, aktibista aspergaitza,
bizitzan gutxitan aurkitzen ditugun horietakoa

Maria Rosario, bizia, sutsua, bizizalea, mendiak
mugitzeko gai dena, justiziaren aldeko
konpromiso hautsezinekoa


Maria Rosario, estratega, liderra, sinesmen
sendoen eskola politikoaren sortzailea

Maria Rosario, itzela, eskuzabala, maitasunen
iraultzailea eta utopien eraikitzailea

Mariarro, zure kemenak amesten dugun
mundurantza garamatza

16.

Atzerapausoez kezkatuta



Mendez mende, emakumeen lorpenek atzerakadak egin dezakete, eta hori ondo erakutsi digu historiak. Oinarrizko eskubideekin argi ikusten dugu, hala nola enplegua edo hezkuntza lortzeko eskubideekin, abortuaren kasuan, gero eta lege murriztaile eta zigortzaileagoekin, edo emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatzeko egiturak desagitearekin.

Ermuan ere atzerakada handiak gertatu dira. Berdintasunaren arloan udalerri aitzindaria izan zen –EAEko lehen berdintasun-teknikaria kontratatzea eta udalean lanpostu egonkorra bilakatzea lortu zen–, baina, aurreko teknikariak erretiroa hartu ondoren, lanpostua hutsik egon da hilabete luzez. Udalak, lanpostua desagerrarazi, eta behin-behineko lan-poltsa bat atera du. Emakumeen Topalekuko dinamizatzailearen figura ere desagertu da, eta Nahita aldizkaria 2019ko irailean itxi zen, hamabi urteko ibilbidearen ondoren. Mariarro arduratu zen lanpostu horien funtzio, ezaugarri eta betekizunen alde argudiatzeaz; horretarako, harremanetan jarri zen kolektibo feminista batekin, Iruñeko antzeko zerbitzu baten ardura zuena. Mina zuen, eta galeraz eta atzerapausoez kexatzen zen.

Berdintasun Kontseiluari dagokionez, udalak jokoaren arauak aldatu ditu, inor kontuan hartu gabe. Ondorioz, Nushu taldeak eta Ermuko Emakumeen Asanbladak gune horretan parte hartzeari utzi diote.

Udalaren jarrera aldaketa 2019an ikus daiteke, zehazki, Emakumeen Etxeen inguruan antolatutako jardunaldietan; Portugaleten egin ziren. Izan ere, Ermua gonbidatuta zegoen bere esperientzia aurkeztera, baina Berdintasun Kontseiluan eta Emakumeen Topalekuan parte hartu zuten taldeek ez zuten horren berri izan. Berdintasun-teknikariari ere kanpotik heldu zitzaion informazioa:

udal ordezkari gisa, udaleko zuzendari nagusia joango zen: Emakumeen Topalekuarekin, Kontseiluarekin eta berdintasun-politikekin harreman eskasa zuen pertsona.

Mariarro eta Rosa ere joan ziren jardunaldietara: «Larunbat goiz batean joan ginen Portugaleteraino. Nahiz eta udalak ez zigun ezer esan, guk jardunaldi ireki horietan parte hartzea erabaki genuen; publikotik, noski, ez gonbidatu bezala. Ermuko Emakumeen Etxearen parte sentitzen ginelako egin genuen, nahiz eta udaletik ahotsa kentzen saiatu». Estrategia aurretik adostu zuten: Mariarrok ez zuen hitza hartuko, Rosak hitz egingo zuen, eta edukiak ere finkatuta zeuden. Baina, Mariarrok ezin izan zion haserreari eutsi: «Mariarro oso haserre zegoen. Ermuko udaleko ordezkariak esplikatu zuen berdintasun-teknikaria ordezkatzeko zuela, hura bajaran baitzegoen, eta horregatik etorri zela bera jardunaldietan. Mariarro sutan zegoen». Rosak hitza eskatu eta mikrofonoa ekarri ziotenean, Mariarrok, sututa, eskuetatik kendu zion, aurrena berak hitz egiteko. «Jakina, barrena hustu ondoren, mikroa pasatu zidan, hitzartutakoa esplika nezan. Ezin izan ziola eutsi esaten zidan etengabe».

Emakumeen Asanbladak bere haserrea agertu zuen sare sozialetan zabaldu zuen idatzi batean:

«“Emakumeen Kontseilua berdintasun-politikak garatzeko zutabea da” esan du udaleko ordezkariak, Portugaleten. Ejem! Horregatik al dira hain gardenak eta parte-hartzaileak beren proposamenekin? Erorarazten uzten dituzten proposamenekin? Horregatik “fusilatzen” al dituzte taldeek proposatutako ideiak, berenak direla itxuratu arte? Horregatik ahazten al dute Kontseiluko emakumeak gonbidatzea beren esperientzia kontatzera eta beste udalerrri batzuekin partekatzen? Portugaletekoa Kontseiluari informaziorik eman ez izanaren beste adibide argi bat da. Elkarrekin ere ez digute utzi parte hartzen Emakumeen Etxearen berregituraketan; merezi dugun aitorpena ukatzen digute».

Militantzia-moduak ere eraldatuz joan ziren. Gai horrek kezkatzen zuen Mariarro, eta, oro har, «eguneroko lan jarraituan konpromiso gutxiago» ikusten zuen. Militantzia-motari zegokionez, beste behin ere, gogoetaren eta begirada estrategikoaren aldeko apustua egiten zuen. Izan ere,

«ez da soilik gauzak egitea; kartelak, manifestazioak eta pintadak egingo ditugu, baina azterketa eta hausnarketa egon behar du. Jakin behar da nora goazen, eta zergatik goazen horretara; zer helburu lortu nahi ditugun; nori irabazi nahi diogun; nola hurbiltzen garen jendearengana, gauza askorekin ez duzulako jendea hurbiltzen. Erakunde batean zer jarduerak ematen duen eta zeinek ez jakin behar da. Jendea aldarrikapen batzuetara ez batzeak ez du esan nahi aldarrikapen horiek alde batera utzi behar direnik, baina pentsatu behar da nola hurbildu benetan jendea batzeko. Eta hori oso zaila da, oso zaila»⁴⁹.

Mariarrok aktibismoa eta militantzia bereizten zituen. «Aktibismo handiagoa ikusten dut, ez dut esaten egon behar ez denik, baina aktibismo handiagoa ikusten dut». Gogoeta eta ekintza ezin direla bereizi zioen: «Ez da egon behar, batetik, pentsatzen duen jendea, eta bestetik egiten duen jendea; egiten duen jendeak pentsatu behar du nola eta zertarako. Bestela zer, tentelak bezala?»⁵⁰.

49 Audio-elkarrizketa, *Drogetenitturri* (2020).

50 *Ídem*.





17. Mariarroren ondarea

Jasotako testigantza askoren arabera, Mariarrok eskola sortu zuen, eta politika egiteko bere moduak talka egiten zuen espazio erradikaletako metodoekin: kaleko borroka eta erakundeetako parte-hartzea uztartzen zituen, haietaz jabetzen zen, ez usurpazio-ekintza gisa, baizik eta norberaren eskubidea zelako. Hurrengo belaunaldiak bere egin zuen borroka-modu hori, ulertu baitzuen fruituak ematen zituela, erradikaltasuna eta autonomia galdu gabe. Horrela, Ermuak espazio eta zerbitzu aitzindariak lortu zituen.

Utzi duen beste ikaskuntza bat da sektore eta pertsona ezberdinak biltzearen garrantzia. Mariarrok mundu guztiarekin zuen harremana, jakina; batzuek gehiago maite zuten eta beste batzuek gutxiago, bera bezalako pertsona bat deserosoa baita sektore batzuentzat. Baina jende ezberdin asko zuen inguruan, ez zen nekatzen parte-hartzea eta konpromisoa eskatzeaz, eta hori sentsibiltate desberdinetako pertsonekin aliantzak ehuntzen zituelako zen, eta diskurtso eta gertaera bateratzaileak eraikitzeagatik.

Mariarro, feminismoan bidaide eta zubigile. Memoria kolektiboa ehuntzen



Feminismoa izan da bere borroka guztien zeharkako ardatza. Proposamen bakoitzak, proiektu bakoitzak, feminismoaren ikuspegi eraldatzailea zuen. Baina praktika politikoan eragina izateaz gain, feminismoa izan da bere bizitzaren motorra, baita guretzat ere.

Hartu zuen konpromiso militantea dela-eta gauza askori uko egingo zion ziur aski. Baina ez zuen inoiz zalantzan jarri bere erabakia, eta aktibo mantendu zen amaierara arte. Berak ziurtatzen zuen bezala: «Militantzia politikoa da nire jardunaren erroa. Militantzia horretan, argi geneukan garrantzitsuena pertsonen bizitza dela»⁵¹. Ez zuen gustuko gizarte hori, «baina eraldatzeko, zerbait egin behar dut»⁵².

51 Audio-elkarrizketa, *Drogetenitturri* (2020).

52 *Ídem*.

Mariarrok erakutsi zigun ekintza garrantzitsua dela, baina beharrezkotzat zituen, halaber, etengabeko hausnarketa eta ekintza horri eusteko pentsamendua. Taldean pentsatzeko eta argudiatzeko gonbidapena luzatzen zuen etengabe, eta lau zutabetan banatzen zuen borroka: pentsamendu politikoa, hausnarketa, errealitatera ekartzea eta ekintza.


Utzi digun ondarearen zati garrantzitsu bat, bada, bizitzaren aurrean zuen jarrera da. Bizitza betea, gozamenerako eta borrokarako lekuarekin, pertsonetikiko eta Ermuarekiko, bere herriarekiko, elkartasun eta konpromisoarekin. Bere energia eta borrokarako gaitasuna kutsakorrak izan dira, eta, ibilbide horretan lagundu dioten pertsonentzat, eredu bat.

Izan ere, Mariarro ez da bakarrik ibili, beste mundu bat posible dela uste duten dozenaka emakume eta gizonen eskutik baizik. Eta hori lortzeko beharrezkoa da konpromisoa hartzea, harremanak izateko dugun modua aldatzea, komunitatearen aldeko apustua egitea, lotura abegikorrak sortzea, ingurunea eraldatzea, eta, oroz gain, hori zaintzea eta gure burua zaintzea.

Mariarrok arrasto ezabaezina utzi du, Ermua ez litzateke gaur egun den bezalakoa izango bera gabe, eta ospatu nahi dugu. Bere hazia heda dadila...

Borrokak aurrera jarraitzen du...

Bakarka zein taldean elkarrizketatutakoen zerrenda



Alejandro Arrizabalaga Urreta, 70 urte

Amelia González Gulin, 70 urte

Anabel Sanz Del Pozo, 59 urte

Antonia García Murillo, 72 urte

Bea Narbaiza Amillategi, 54 urte

Begoña Fernández Alcalde, 63 urte

Begoña Vesga Allende, 71 urte

Blanqui Iturriagagoitia Areitioaurtena, 75 urte

Djeditou Sah Abidi, 47 urte

Djenet Aiouaz, 31 urte

Gordo - José Antonio Muñoz Moreno, 57 urte

Ibrahima Cisse, 36 urte

Idoia Goikoetxea Guridi, 63 urte

Itziar Ruiz Guzmán, 26 urte

Joana Díaz Benito, 28 urte

Juantxo Díez Martínez, 58 urte

Julio Urquiza Maeso, 70 urte

M'barak Chakour Aitba, 25 urte

Maixabel Garitagoitia Zabala, 82 urte

Manoli Corrales Rodríguez, 71 urte

Manuel Moreno Martín, 57 urte

Marga Pérez Barrio, 57 urte

María Ángeles Ruiz Pando, 66 urte

Nerea Álvarez Arruti, 53 urte

Rosa Baltar Cabo, 47 urte

Txato - Alberto Alava Martínez, 71 urte

Yassir Boutkhil, 3 urte

Younes Boutkhil, 38 urte

Zaida Fernández Pérez, 38 urte

Argazkien aurkibidea



2-3. or. Ermuko Emakumeen Topalekua.
Murala: Natalia Arrieta eta Rosa Basoa.



4. or. Parrandan Uxuerekin.



6. or. Mariarro nerabea.



13. or. Miguelarekin, tiro-poligonoa eraistearren aldeko manifestazioa.



16. or. Manifestazioa.



22. or. Ermuko Herri Hautagaitza.



26. or. New Yorken.



29. or. Ermuko Emakumeen Hautagaitzaren eskuorria.



33. or. Emakumeen Hautagaitza.



34. or. Enkartzelada. Abortoak egiteagatik epaitutako 11 emakumeentzako amnistia.



38. or. Euskadiko Emakumearen I. Jardunaldiak.



40. or. Pegatina. Amnistia 11 emakumeentzat eta abortatzeko eskubidea.



41. or. Feministok prest!! kanpaina



42. or. "Emakumeen aztarnen" aurkezpena. Ermua.




45. or. Prentsa. Familia Elkartearen sorrera.



49. or. Euskadiko III. Jardunaldi Feministen kartela.



50. or. Izelaieta kalea, Mariarroken jaiotetxea.



50. or. Oraingo Emakumeen Topalekua.



51. or. Emakumeen Topalekua irekieraren 15. urtemuga.



52. or. Martxoaren 8ko grebaren informazio-mahaia.

Mariarri, feminismoan bidaide eta zubigile. Memoria kolektiboa ehuntzen



54. or. Prentsa. Emakumeen Asanbladaren kritika planning-aren funtzionamenduari.



55. or. Planning-aren itxieraren aurkako ekitaldia.



55. or. Planning-aren itxieraren aurkako manifestazioa.



57. or. Abortatzeko eskubidearen aldeko itxialdia Ermuko Udaletxean.



58. or. Prentsa. Tratu txarren biktimentzako babes etxe baten eskaera.



61. or. Ermuko Berdintasun Kontseilua.



62. or. Marokoren Sahararen okupazioa salatze nazioarteko ekitaldia.



64. or. Djeditou Sah Abidirekin.



67. or. El Aaiun, Mendebalde Saharako Lurralde Okupatuak.



71. or. Emakume errefuxiatuen aldeko "performancea".



73. or. Ongi Etorri Errefuxiatuak.



75. or. Miguelarekin, lanaldi osoko militanteak.



76. or. Panpox Txaranga feministaren kideekin Ermuko jaietan.



79. or. Rockera, urtebetetze festa batean.



80. or. Salaketa enkartelada Ermuko Egoitzaren aurrean.



83. or. Lekeitio, bere ama, aita eta izeba batekin.

Argazkien aurkibidea



84. or. Bere lagun feministekin
Ihauterietan ere.




87. or. Martxoak 8ko Plaza,
emakume presoek elkartasuna
eta babesa adierazteko ekitaldia.



88. or. Kale-ekintza emakumeen
botoaren urteurrenean.



90. or. LGBTI+ eskubideen aldeko
elkarretaratzea Ermuko plazan.



92. or. Korrikako lekukoa eramaten.



94. or. Martxoaren 8ko
informazio-mahaia.



98. or. Ermuko Martxoak 8ko Plaza,
ekitaldi feminista.



102. or. Emakumeen Topalekua,
Ermuko Emakumeen eta
feministen aztarnen ibilbidea.



106. or. Koño Records eta lagunekin
bere 70. urtebetetzeko festan.



109. or. Parrandan lagunekin.



111. or. Mariarroken 70. urtebetetze
festarako sarrera.



112. or. Miguel Ángelekin
topa egiten.



115. or. Miguelarekin.



116. or. Mariarro betiko.



120. or. Saharako kanpalekuetan.
El Aaiuneko wilayan.



122. or. Mariarro,
"Timonel Handia".
70 urtemugako pankarta-oparia.

Bibliografia

- ARANDA, O., ASTARLOA, A., CARRASCOSA, F. (2000) *El papel de las Patronas en Ermua: la importancia del trabajo doméstico en el proceso productivo*. Ermua, Ermuko Udala – Aukeren Berdintasunerako Departamentua.
- ARRIOLA, M.J. et al., (1975) *Ermua. Comunidad en eclipse*. Ermua, Bilbo, Soziologia Fakultatea, Deustoko Unibertsitatea
- AZKONA, J.M. (2003) *Historia General de la Villa de Ermua: Del Paleolítico al asesinato de Miguel Ángel Blanco*. Ermua, Ermuko Udala.
- BALTAR, R., *El derecho al aborto en Euskadi. Análisis de las experiencias de las mujeres en el municipio de Ermua*. Ikasketa Feministak eta Generokoak Masterrerako egindako ikerketa lana. 2008/2009. UPV/EHU.
- BASANTA, A. (2021) *Núria Casals: el despertar del feminismo en el mundo del trabajo*. Cataluña Plural webgunetik hartua: <https://catalunyaplural.cat/es/nuria-casals-el-despertar-del-feminismo-en-el-mundo-del-trabajo/>
- ERMUKO NAZIOARTEKO ELKARTASUN ETA LANKIDETZA KONTSEILUA (ENELK), (2021) *20 años haciendo camino. Memoria de actividades*. Ermua, CSCI.
- EPELDE, E., ARANGUREN, M., RETOLAZA, I. (2015) *Gure Genealogia Feministak. Euskal Herriko Mugimendu Feministaren kronika bat*. Emagin, Emakumearen Inguruko Ikerkuntza Sustatzeko Elkartea
- ESTEBAN, M.L., OTXOA, I. (2010) “DIÁLOGO: Mari Luz Esteban e Isabel Otxoa: El debate feminista en torno al concepto de cuidados”, CIP-Ecosocial –ECOS Buletina, 10. zbk.
- FERNÁNDEZ, Z. (2014) *Huellas feministas y de mujeres: memoria de nuestra lucha*. Ermua, Ermuko Emakumeen Asanblada.
- LAGARDE, M. (2006) *Pacto entre mujeres: Sororidad*. Asociación de Administradores Gubernamentales webgunetik hartua: <https://www.asociacionag.org.ar/pdfaportes/25/09.pdf>
- MINER, K. (2020) Empar Pineda Erdozia. *Gorputzak hala eskatua*, Hernani, Hernaniko Udala-Berdintasuna.

- MONTERO, J., (2022) *Algunos debates niegan una realidad: la incorporación de las mujeres trans a la lucha feminista*. Sin Permiso webgunetik hartua:
<https://www.sinpermiso.info/textos/algunos-debates-niegan-una-realidad-la-incorporacion-de-las-mujeres-trans-a-la-lucha-feminista>
- MORENO, A. (2006), *Mujeres en lucha, el movimiento feminista en España*. Amparo Moreno Sardà webgunetik hartua: <http://amparomorenosarda.es/es/node/66>
- OBALDIA, J. (2018) *INDUSTRIA, DEMOGRAFÍA Y URBANISMO EN ERMUA. Aproximación a la realidad industrial de la villa desde su surgimiento hasta hoy día*. Ermua, Ermuko Udala.
- Primeras Jornadas Catalanas de la Mujer. Mayo de 1976: Testimonios en primera persona*. Ajuntament de Barcelona webgunetik hartua:
<https://ajuntament.barcelona.cat/arxiunicipal/arxiuhistoric/es/primeras-jornadas-catalanas-de-la-mujer-mayo-de-1976>
- EMAKUNDE ALDIZKARIA (2013) “Asamblea de Mujeres de Ermua: El compromiso con la igualdad”, 87. zenbakia.
- RODRIGUEZ, J.R. (2019) “Cien años de desigualdad. La situación legal de la mujer española durante el siglo XX” Emakumeen Historiaren XI. Kongresu birtuala.
- SAPSOOTHAM, I. (2018) *INDUSTRIA, DEMOGRAFÍA Y URBANISMO EN ERMUA. Análisis de la relación del boom demográfico y el desarrollo urbanístico entre 1955 y 1975*. Ermua, Ermuko Udala.

Ikus-entzunezkoak

- “Sobre la Historia de las Mujeres de Ermua: Esta es otra historia” dokumentala. Emakumearen Udal Kontseilua, 1994ko urria. Online ikus daiteke.
- “Ermua, 20 años haciendo camino - 20 urte elkertasunean lanean” dokumentala. Ermuko Nazioarteko Elkertasun eta Lankidetzak Kontseiluaren historia. Online ikus daiteke.
- Mariarro Arrizabalaga Urretaren testigantzak. *Drogetenitturri* (2020).

Aurkibidea

1. Hitzaurrea	5
2. Lehen urteak Ermuan. Haurtzaroa eta nerabezaroa	7
3. Klandestinitatea eta langile-borroka	13
4. Legez kanpo egotetik legeztatzerara. Demokrazia eta parte-hartzea	23
Herri Hautagaitza	24
Demokrazia parte-hartzailea	27
Udal-baliabideak herriarenak dira	28
Emakumeen hautagaitza feminista	31
5. Bigarren olatu feminista Ermuara iritsi zenekoa	35
Feminismoaren esnatzea	37
Lehen borrokak	38
Gure gorputzen gainean erabakitzeke eskubidea	40
6. Hirigintza: emakumeek gidatutako borroka	43
Neurrigabeko hazkundera	43
Ugazabandreak	44
Familien Elkartea	45
Emakumeentzako gune propioa	49
7. Borroka feminista Ermuan: mugarri batzuk	53
Kontrazepzio eta Informazio Sexualaren Udal Zentroa, Planning-a	55
Emakumearen Arretarako Bulegoa eta Babes Etxea	58
Emakumearen Udal Kontseilua	60

8. Borroka internazionalista eta solidarioa	63
Sahara bihotzean	63
Gaixo dauden haurren harrera	65
Emakume Saharauien Batasun Nazionala babesteko Euskal Sarea	67
Ermuko Nazioarteko Elkartasun eta Lankidetzat Kontseilua (ENELK)	69
Ermua Harrera	71
9. Dantzatu ezin bada, ez da nire iraultza	77
10. Zaintza ere politikoa da	81
11. Bakarrik ezin dugu, elkarrekin bai	85
12. Liderra, protagonista	89
Argi-ilunak	95
13. Estratega: begirada globala eta alderdi praktikoak bateratzea	99
Antolaketa eta agintea	101
14. Mariarro laguna	107
15. Laguna bizitzan, laguna borrokan	113
16. Atzerapausoez kezkatuta	117
17. Mariarroken ondarea	121
Bakarka zein taldean elkarriketatutakoen zerrenda	124
Argazkien aurkibidea	125
Bibliografia	128

